

**UDARREGI IKASTOLAREN**

**HEZKUNTZA**

**PROIEKTUA**



<b>UDARREGI IKASTOLAREN NORTASUN</b>	
<b>EZAUGARRIAK EDO IDEARIUMA .....</b>	<b>1</b>
<b>SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>EZAUGARRIAK.....</b>	<b>2</b>
1. HIZKUNTZA ETA KULTURA.....	2
2. PLURALISMOA .....	3
3. GESTIOA ETA FUNTZIONAMENDU EGITURA.....	3
4. HEZKUNTZA.....	3-4
5. IKASLEEKIKO .....	5
1. Ikasketa- mailan.....	5
2. Izaera- mailan.....	5
3. Gizarte- mailan .....	6
6. FAMILIA ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK.....	6
<b>UDARREGI IKASTOLAREN GOBERNU ETA</b>	
<b>FUNTZIONAMENDU EGITURA.....</b>	<b>7-8</b>
<b>IKASTOLAKO GOBERNU ETA</b>	
<b>FUNTZIONAMENDUAREN ORGANIGRAMA.....</b>	<b>9</b>
<b>SARRERA .....</b>	<b>10</b>
<b>GOBERNU EGITURA.....</b>	<b>11</b>
1. BATZAR OROKORRA .....	11
2. ARTEZKARITZA KONTSEILUA .....	11
2.1. Oinarrizko esanahia eta osaera.....	11
3. ZAINZA BATZORDEA.....	12
3.1. Oinarrizko esanahia .....	12
<b>FUNTZIONAMENDU EGITURA.....</b>	<b>12</b>
1. FUNTZIONAMENDU ERATZAILEA.....	12
Oinarrizko esanahia eta osaera.....	12
1.1. ZUZENDARIA.....	13-15
1.2. KOORDINATZAILE - TALDEA .....	16
2. FUNTZIONAMENDU PEDAGOGIKOA.....	17
2.1. IRAKASLEA .....	17
2.2. IRAKASLE - TUTOREA .....	18
2.3. IKASLEA.....	19
2.4. IRAKASLEEN KLAUSTROA .....	20
2.5. IKASLEEN ORDEZKARIAK ETA	
IKASLEEN BATZORDEA.....	21
2.5.1. Irakasleen Ordezkariek .....	21
2.5.2. Irakasleen Batzordea.....	21-22
3. FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBOA .....	23
Oinarrizko esanahia eta osaera.....	23
3.1. IDAZKARIA .....	23-25

<b>4. BESTE ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUA .....</b>	<b>25</b>
4.1. ORIENTAZIO - DEPARTAMENTUA.....	25-26
4.2. ESKOLAZ KANPOKO KIROL - ZERBITZUA .....	27
Oinarrizko esanahia.....	27
4.2.1. Entrenatzaileak .....	28-29
4.3. GARRAIOA.....	29
4.3.1. Enpresak bete behar dituen baldintzak .....	29-30
4.3.2. Autobusetako begiraleak .....	30-31
4.4. ESKOLA JANGELAKO ZERBITZUA.....	31
4.4.1. Lan harremanen esparrua .....	31
4.4.2. Funtzionamendu esparrua.....	32
1. Zuzendariaren funtzioak .....	32
2. Idazkariaren funtzioak .....	32
3. Guraso Deleatuaren funtzioak .....	33
4. Eskola Jangelako Langileen funtzioak .....	33-34
<b>UDARREGI IKASTOLAKO BARNE ARAUDIA .....</b>	<b>35-36</b>
<b>SARRERA .....</b>	<b>37</b>
<b>PROZEDURAK .....</b>	<b>37</b>
1. BATZAR OROKORRA .....	37
2. ARTEZKARITZA KONTSEILUA .....	38
3. ZUZENDARIA.....	39
4. KOORDINATZAILE - TALDEA .....	39
5. IRAKASLEAK ETA TUTOREAK.....	40
6. IRAKASLEEN KLAUSTROA .....	40
7. IKASLEEN ORDEZKARIAK ETA IKASLEEN BATZORDEA.....	41
8. ORIENTAZIO - DEPARTAMENTUKO ARDURADUNAK .....	42
9. ESKOLAZ KANPOKO KIROL - ZERBITZUA .....	42-43
<b>EGITURA ERATZAILEAREN ELEMENTUEN</b>	
<b>ARAUTEGIA .....</b>	<b>44</b>
1. IRAKASLEAK.....	44-46
1.1. IRAKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	46
1.1.1. Irakasleen Eskubideak .....	46-47
1.1.2. Irakasleen Betebeharrak.....	48-49
1.2. IRAKASLEEN ONESPENAK, HUTSEGITEAK ETA	
ZIGORRAK.....	49-51
2. IKASLEAK.....	52
2.1. IKASLEEN ESKUBIDEAK.....	52-57
2.2. IKASLEEN BETEBEHARRAK .....	57-58
2.3. DIZIPLINA ARAUBIDEA. HUTSEGITEAK, ZIGORRAK ETA	
PROZEDURAZKO GARANTIAK.....	58-64

3. GURASOAK.....	64
3.1. GURASOEN ESKUBIDEAK .....	64-65
3.2. GURASOEN BETEBEHARRAK.....	65-67
ERANSKINAK .....	68-77
IKASLEEN ARAUDIAK.....	68-74
1. EGUNEROKO FUNTZIONAMENDU ARAUDIA .....	68-72
2. EBALUAZIO - AZTERKETAK ORDENATZEKO ARAUDIA .....	72-73
3. IRTENALDI, TXANGO ETA BIDAIK ORDENATZEKO ARAUDIA.....	73-74
IKASTOLAKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ESKABIDEA .....	75
IKASTOLAREN HARREMANAK SALMENTA - ETXE, ERAKUNDE PRIBATU ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEKIN.....	76
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	77
IKASTOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN ALDAKETAK .....	77

**UDARREGI IKASTOLAREN  
NORTASUN EZAUGARRIAK EDO  
IDEARIUMA**

## **SARRERA**

Ikastolaren Heziketa proiektu Orokorra edo Ideariuma egitearen planteamendua ez zaigu ondorioitu behar, egina ez, eta egin behar den zerbait delako, hots, espediente bat betetzearren, aitzitik, NORA JOAN NAHI DUGUN, eta gure ikasleentzat zein giza nahiz pedagogi baloretan oinarritutako HEZKUNTZA MOTA nahi dugun hausnarketaren beharrarengatik. Ez da nahikoa lan egitea, egiten duguna ZERGATIK eta ZERTARAKO egiten dugun argitu beharrean gaude, hau da, Udarregi Ikastola irakasle eta ikasleen lanaren zergatia eta norabidea zohartu beharrean dago.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu, proiektu honek irakasleen gogoramen ondorioa ez ezik, GURASOENA ERE badela, guztion ASMOAK eta NAHIAK jasotzea dela bere xedea. Halaber, Usurbilgo herriari irekirik, zabalik, egongo da herriak gure heziketaren NONDIK NORAKOA jakin dezan. Aldi berean, proiektu hau ez da zerbait hertsia, itxia izango, aldiz, denboran zehar, Gizartearen eta Hezkuntzaren etengabeko aldaketaren eraginez, berritzaera eta aberastera garamatzen proiektua.

Gure Ideariumak, beste zenbait ikastetxetakorekin eta batez ere Ikastolen Proiektuarekin, zenbait gaitan bat etorriko baldin bada ere, GURE IKASTOLAREN BEHARRAK jaso beharko ditu, gure eguneroko errealitateatik abiatu beharko du, gure NORTASUNA jaso dezan eta benetan eraginkorra izan dadin.

Azkenik, desiragarri litzaziguke, esparru teoriko batetan bakarrik geratuko ez den proiektua izatea, ERAKARGARRI eta gure lana sustraitu eta gidatuko duen proiektua izatea, alegia.

## **EZAUGARRIAK**

### **1. HIZKUNTZA eta KULTURA**

Ikastolak, euskara eta euskal kulturaren berreskuratze, igortze eta indartzeko, euskal erakunde konprometitua bezala sortu baziren, gure ikastolak, gaur egun, helburu hauekin bat egiten jarraitzen eta jarraituko du Usurbilen, jarrera eraginkor bat hartuz beren transmisioan, aldi berean, beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei irekia, beraiegandik eta beraiekin aberasten delarik.

- 1.1. Herri baten funtsezko ezaugarrietariko bat hizkuntza denez, gure ikastolara iristen diren Usurbilgo nahiz kanpoko ikasle euskaldunek zein erdaldunek komunikaziorako eta ikastolan egingo dituzten ikasketetarako lehen hizkuntza euskara izatea du helburu Udarregi Ikastolak.
- 1.2. Era berean, ematen edo eman daitezkeen hizkuntza kanpotarrak irakatsi, landu eta sendotuko ditu, eta egungo Euskal Herriko hizkuntza errealitatea kontuan hartuz, ikasleen gaztelaniako hizkuntza konpetentzia ziurtatuko du, edozein gizarte nahiz eskola giroan normaltasunez bizi daitezzen.

## 2. PLURALISMOA

Ikastola Euskal Herriko pentsaera eta joera desberdinen isla denez, Udarregik bere burua APOLITIKO eta AKONFESIONALTZAT jotzen du, inongo talde politiko eta erlijiosorengandik loturarik gabe aurkezten delarik.

- 2.1. Ez du inolako jaiotza, arraza, sexu, ez eta erlijio, politika, ekonomia eta filosofia diskriminaziorik onartuko, ikastolan nahiz kanpoan eman daitezkeen ideia desberdinen aurrean errespetutsu azalduko delarik. Dena den, gizarte demokratiko baten alde dagoenez, herriak eta pertsonak zapaltzen dituen sistema oro gaitzesten du.
- 2.2. Aldi berean, herri bat osatzen dugun eta izaten jarraitu nahi dugun neurrian, bateratzen gaituzten guztion uztarri diren ideia eta itxaropenekin, bat egingo du Udarregik.

## 3. GESTIOA ETA FUNTZIONAMENDU EGITURA

Ikastola denok osatzen dugunez, dauden eta eman daitezkeen gestio-organo kolektiboak BERDINTASUNEZ osatuko dira.

- 3.1. Dena den, eta lan-taldeak eraginkoragoak izan daitezen, ez da beharrezkoa izango, talde guztietan, ikastola osatzen duten partaide guztien presentzia: guraso, irakasle, ikasle, pertsonal ez-irakasle, bazkide laguntzaile, herriko Administrazioaren ordezkari, eta abar. Partaidetza, gestio-organoen izaera eta lan-motaren arabera antolatuko da.
- 3.2. Halaber, ikasleen partaidetza-eskubidea ziurtatuko da adina eta gaien arabera.
- 3.3. Ikastolak, "Euskal Eskolaren Diseinuan" baieztatu genuen bezala, Udarregi ikastola, IKeren BATZAR OROKORRA izango du ikastegiko organo erabakitzaile gorena eta bere funtsezko izaera ezarriko duena. ARTEZKARITZA KONTSEILUA izango da Batzar Orokorreko organo ordezkaitzaile eta funtzionala, eragilea.

## 4. HEZKUNTZA

Udarregik, heziketarako erakunde bat denez, ikasleek beren ezagupen, trebetasun eta gaitasun doikuntza eta armonia adin desberdinetara egokiturik eta garapen intelektual, fisiko, sentikor eta moralak lor ditzaten izango du helburutzat, bizitzan eta Gizartean gozatzen saia daitezen eta pertsonak bezala beren ardurak har eta bete ditzaten.

- 4.1. Ikasleen ezagupen, trebetasun eta gaitasunen arteko armonia lortzeko, IRAKASLEEN ETAPA, ZIKLO NAHIZ MAILAKO PROGRAMAZIO KOORDINATUA, EZINBESTEKOA IZANGO DA. Halaber, ahalik eta metodologia eraginkorrena sustatuko du, HAUSNARKETA, ESPERIMENTAZIO, IKERKETA ETA EBALUAZIO GIROAK BULTZATUKO DITUELARIK, irakaskuntza-prozesua etengabeko hobekuntzan egon dadin.

- 4.2. GIZARTEAN EMATEN DIREN ZIENTZIA BERRIKUNTZAK ETA TEKNOLOGIA ALDAKETAK LEHENTASUNEZ TRATATUKO DITU IKASTOLAK BERE IRAKASKUNTZA- PROZESUAN INTEGRATUZ. Bestalde eta honekin duen erlazioarengatik, komunikabide anitzek egunero ematen diguten informazio ugariaren aurrean bizi garenez, eskema malguak osatzeko kapazitatea landu beharko dugu, horretarako aztertuko ditugun gaien arteko aukerak eta lehentasunak ongi finkatu beharko ditugularik. Funtza duten ikasgaiak eta osagarri diren edukiak ongi berezitzen.
- 4.3. Oso azkar aldatzen ari den Gizartean bizi gara eta, ondorioz, irakasleen berreziketa eta birziklatzea funtsezkoa da. Hori dela eta, IRAKASLEEN BERRIKUNTZA ETA EGUNERATZEA ikastolaren helburu nagusietako bat izango da. Halaxe, ikastolaren beharren arabera eta arazoizko planen bidez, Udarregik errekurtso propioak urratu beharko ditu bai IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO NOLA IKAS ETA TEKNOLOGIA BALIABIDEEZ HORNITZEKO. Udarregiko irakasleak eta ikasleak baliabide teknologikoen erabileran normaltasun osoz murgiltzea, izango du helburutzat.
- 4.4. Irakaskuntzaren kalitatea hobegotzeko asmoz, Udarregik duen ORIENTAZIO-DEPARTAMENTUA edukiz betetzen joan beharko du bai ikasleen arazoak detektatzeko goiztiar mailan nola arazo hauen tratamenduan eta ikasleen oraingo nahiz ondorengo ikasketen aurrean beharko duten orientazioan.

Ikastolak aurrera ateratzeko finkatu duen egitasmoa da, eta bultzatu behar duena, ez badugu erdibidean geratuko den proiektua izaterik nahi.

Bestalde, behar bereziko ikasleei dauden aurrerapen eta teknika pedagogikoez garaturiko plangintza eskaini beharko diegu, beren integrazioa ahalik eta aberatsena izan dadin.

- 4.5. Ikaslearen garapen-prozesuan, Udarregik betidanik eman dio garrantzia HEZIKETA FISIKOARI eta bide honetatik abiatu da aukerak gero eta aberatsagoak eskainiz: Gimnasiako irakaslearen kontratazioa, 16 urte bitarteko programazioa, eskolaz kanpoko kirol ekintzak (futbola, eskubaloia, saskibaloia, igeriketako sustapen kanpainak, etab.), herriko kirol eta kultura ekintzetan ere partaidetza zuzena eta zeharkakoa izan duelarik beti.

Gaur egun, herriko Udal Kiroldegiarekin oraindik ere gehiago aberastu daiteke Udarregiko neska eta mutilen Heziketa Fisikoa, baina ezinbestekoa zaigu eskolaz kanpoko kirol ekintzak erraz bideratuko dituen TALDE ERAGINKOR bat sortzea, guraso, entrenatzaile, begirale, eta abarrekin.

- 4.6. Ikaslearen hezkuntzak, ikaslea bere osotasunean heztea eskatzen du, horregatik eta balore tradizionaletan sendoki sustraitutako gizarte batetik, balore anitz eta sakabanaturiko beste batera iragan garenez, oso garrantzitsutzat jotzen du ikastolak, giza eta Etika baloreak guraso eta irakasleen gogoramen eta jarrera koordinatuaren fruitu izatea. Guraso eta irakasleok, gizarte zuzen, aske, solidario besteekiko adeitsu eta elkarriketaren alde jokatu duen pertsona heztea izango dugu helburu eta jomuga; halaber, gaur egun arrisku larrian dauden gure planetako bizitza mantentzen dituzten sistemekin etengabeko harmonian eta orekan garatzea.



Prozesu hau garatzeko, ikastolak ikaslearekiko eta maila bakoitzean landu behar dituen helburuez gain, ondorengo hauek azpimarratu nahi ditu:

## 5. IKASLEEKIKO

### 1. Ikasleeta-mailan

- 1.1. Hizkuntzak komunikaziorako eta ikasketetarako duen garrantzia kontuan hartuz, ikasleak hizkuntza ERRAZ eta ZUZEN erabiltzea izango du helburu ikastolak. Horregatik irakasle guztiek eta bereziki hizkuntzetako irakasleek arreta bereziz zaindu beharko dute helburu hau beren irakaskuntzan.
- 1.2. Ikasleei jarrera ORDENATU, SISTEMATIZATU eta ERATUA izatea eskatuko zaie beren lanetan. Gaiak eta arazoak aztertzerakoan, informazioa lortu, bildu, sailkatu, galderak planteatu, alderatu, kontrastatu eta estrategiak asmatu beharko dituzte irtenbideak bilatu eta arazoak konpontzeko. Joera kritikoa eta sortzailea garatu nahi da.  
  
Ikasleak arrazoiketa objektibo, sistematiko eta zehatza erabiltzea nahi dugu ezagupeneko eremuetan, gero eguneroko arazo eta eginkizunetan ere aplikatzen jakin dezan.
- 1.3. Bakarkako lanetan nahiz taldekoetan partaidetza eraginkorra sustatuko da ikasleengan; bakarkako lanetan, isiluneak eskatuz bere buruari lanak prestatzeko eta taldeko lanetan, norberak bere ekarpenak agertuz eta bestearenak onartuz eta errespetatuz.
- 1.4. Ahal dugun neurrian behintzat, ikaslea ikastolara pozik etortzea nahi dugu, lana egitearen eta ongi bukatzearen gogoia garatuz. Bestalde, ikastolak inguruari ateak zabaltzeko behar dizkio honek irakasteko dituen posibilitateak, gero eta gehiago ustiatzeko.

### 2. Izaera-mailan

- 2.1. Ikasleak bere gorputza ezagutzen eta kontrolatzen ikasi behar du hezkuntza-prozesuan zehar, bere GAITASUNAK eta MUGAK ezagutu behar dituen bezalaxe.  
  
Bere burua garbitzeaz eta zaintzeaz arduratuko da eta zenbait portaera sozialen aurrean (asko erretzea, alkohola, droga, azkar gidatzea, etab.), ikastolak, ikasleak ongizate eta osasunaren oinarritzko oihitura onak lor ditzan, izango du helburutzat.
- 2.2. Bere ingurunean eta ohiko ekintzetan murgiltzeko eta AUTONOMIAZ jokatzeko gai izatea nahi dugu, bere buruarekiko KONFIANTZA- MAILA EGOKIA LORTUZ.  
  
Bere pentsaera eta sentimenduak errespetuz adierazteko gai izan behar du, bere nortasuna libreki eta kritikoki osatzen joan dadin eta erabakiak BEREZKO IRITZIAZ hartzeko gai izan dadin.
- 2.3. Gure Gizarteko eta Euskal Herriko kultura ondarearen balore, jarrera eta sinesmenen oinarritzko ezagupenak lortzen lagundu behar diogu, bere

garapenean gehiago lagunduko duten aukera eta baloreen hautapena egin dezan.

### 3. Gizarte-mailan

- 3.1. Adin eta sexu desberdineko pertsonekin harreman orekatu eta sortzaileak ezartzeko gai izatea nahi dugu; lanak eta ekintzak burutzerakoan berdintasunez jokatu eta eman daitekeen edozein diskriminazio bazter dezan.
- 3.2. Ikasleen arteko nahiz beste pertsonetikiko harremanetarako beharrezkoa izango da elkarrenganako errespetua.
- 3.3. Oinarrizkoak diren eskubideak eta bideak urratzen ikasi behar du, bere burua, behar denean, besteen aurrean defendatzeko; hala nola, beharrezkoa denean, besteenganako elkartasuna adierazteko.

## 6. FAMILIA ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK


Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin BATERA, bakoitza bere eginkizun propioetan, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten GIRO EGOKIA LORTU BEHAR DUTE.

- 6.1. Ikaslea, gizarteko talde desberdinetan partaide izaten, sentiarazten, ahaleginduko dira: familia, gela, lagun-talde eta herriko partaide izaten. Bestalde, ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean.
- 6.2. Guraso eta irakasleen harremanak heziketa-arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, haurren heziketa baitago jokoan. Beraz, arrazoketa eta elkarizketa izango dira harremanen oinarri eta ez nagusikeriak.
- 6.3. Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, hauen asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan, heldutasunaren arabera.



**UDARREGI IKASTOLAREN  
GOBERNU ETA  
FUNTZIONAMENDU EGITURA**

**IKASTOLAKO GOBERNU ETA FUNTZIONAMENDUAREN ORGANIGRAMA**



## SARRERA

Ikastetxe batek dauzkan helburuak eta eginkizunak bete ditzan, beharrezkoa du egitura eta funtzionamendu eragile batez hornitzea, hots, GESTIOAREN BEHARRA dauka.

Gestio hau, ikastetxearen ondorengo zereginetan oinarritzen da:

1. Giza baliabideak – irakasleen Etapa desberdinekiko kokatze egokiak, berauen prestakuntza, espezialitateak...- eta materialak – instalazio egokiak, zerbitzu osagarriak, hezkuntza baliabide aproposenak ... – planifikatu eta kudeatu egin behar dira norabide bati jarraituz, finkatzen ditugun helburuak astiro-astiro lor ditzagun.
2. Gidaritza bat behar dugu helmuga eta helburuak egitarautzako, errekurtsioak bideratu eta banatzeko, pertsonak eta funtzioak koordinatzeko, lortu nahi ditugun helburuen erdiespenean amaituko den lan batean animatuz eta motibatuz.
3. Ebaluazioa eta kontrola ere behar ditugu, erabili ditugun baliabideek finkaturiko norabideari jarraitzen dioten edo ez, edota zein neurritan; eta ezarritako helburuak lortzen ditugun edo ez, edota zein neurritan betetzen ditugun egiaztatzeko.

Zeregin haueetatik, beraz, bi gestio-maila bereiz genitzake:

1. Ikastolaren GOBERNU GESTIOAREKIN zerikusia duten eginkizunak:

- ❖ Norabidea, helmuga, helburuak.
- ❖ Egitasmoen onespeneak, norabidea, helmuga eta helburuei dagozkienean.
- ❖ Egitasmoen burutze, kontrol eta ebaluazioa.

2. Ikastolaren FUNTZIONAMENDU GESTIOAREKIN zerikusia duten eginkizunak:


- ❖ Egitasmoen antolaketa.
- ❖ Egitasmoak lantzea.
- ❖ Azken batean, ikastolako pedagogia, eta ekonomia-administrazio arloen garapena.

Dena den, bi gestio hauek, gestio orokor baten azpi-gestioak baino ez dira, zeren beren egitekoa prozesu bat bakararra eratzen duten jardueren bidez garatzen baita.

## GOBERNU EGITURA

Gobernu Egituran finkatzen dira norabide nagusiak, egitasmoak onartzen eta Hezkuntza Komunitatearen jarduerak eta emaitzak aztertzen eta ebaluatzen.

### Gobernu-organoak



Ikastolaren nahiz Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteen Gobernu-organoak ondorengo hauek izango dira: Bazkideen Batzar Orokorra, Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea.

### 1. BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteen Estatutuak, 3-20. orr., 7-28. atalak.

### 2. ARTEZKARITZA KONTSEILUA

#### 2.1. Oinarrizko esanahia eta osaera

Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteen Estatutuak, 20-28. orr., 28-38. atalak.

### **3. Zaintza Batzordea**

#### **Oinarrizko esanahia**

Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 29-30 orr., 39art.

## **FUNTZIONAMENDU EGITURA**

#### **Oinarrizko esanahia**

Funtzionamendu Egituran garatzen dira Ikastolaren Gobernu Egituran finkatutako xede, norabide eta helburuak.

Funtzionamendu Egituran lau maila desberdin ditugu:

1. Funtzionamendu Eratzailea.
2. Funtzionamendu Pedagogikoa.
3. Funtzionamendu Administratiboa.
4. Beste Zerbitzuen Funtzionamendua.

### **1. FUNTZIONAMENDU ERATZAILEA**

#### **Oinarrizko esanahia**

Aginte Organoek onartu eta erabakitako xede, norabide eta helburu nagusiak, eguneroko laneko egitasmoak bihurtzea eta betearaztea da Funtzionamendu Eratzailearen eginkizuna.

#### **Osaera**

Funtzionamendu Eratzailearen organoak hauek dira: Zuzendaria eta Koordinatzaile Taldea edota Ikasketa Burua.



## **1.1. ZUZENDARIA**

### **Oinarrizko esanahia**

Zuzendaria da ikastolaren ordezkariitza daukana. Bera da Artezkaritza Kontseiluaren aurrean ikastolaren funtzionamendu orokorraren erantzule, irakaskuntza jarduerarena bereziki, eta xedapen ofizialak bete eta betearazten dituena.

### **Mendekotasun-harremana**

Artezkaritza kontseiluaren pean dago zuzen- zuzenean eta bere menpe daude, zuzenki edo zeharbidez, ikastolaren funtzionamenduko pertsona guztiak.

Bere hautaketa, Barne Araudiak xedatutakoaren arabera egingo da.

### **Funtzioak**

#### **Gai orokorretan**

1. Ikastola ordezkatzeko funtzionamendu-gestioko eginkizun guztietan.
2. Ohizko harremanak sustatu eta mantentzea – Artezkaritza Kontseilu eta Lehendakariarekin koordinatuz – Ikastolen Elkartearekin, Hezkuntza Administrazioako erakunde ofizialekin, Udalarekin, herriko beste ikastetxe, erakunde eta egoki ikus daitekeen edozein erakunde pribatu nahiz publikorekin.
3. Proiektu pedagogiko eta xedapen ofizialez informatuta egotea, eta irakasleak informatzeko dokumentazio ingurubide zehatza ezartzea.
4. Ahalik eta informazio osatuena helaraztea familiei ikastolako gai garrantzitsuenez.
5. Ziurtagiri eta dokumentu ofizialak begiztatu eta sinatzea, hala dagokionean, eginkizun hau idazkariarengan ordezkatzuz.
6. Aldizkako harremanak mantentzea Artezkaritza Kontseiluarekin, Etapetako Koordinatzaileekin, Klaustroarekin, eta behar diren guztiak irakasle eta ikasleekin.
7. Etapetako Koordinatzaileak – edota beraien ezean, Ikasketa Burua – aukeratzea, edota irakasleek proposatutakoak baieztatzea.
8. Hezkuntza Komunitateko kideei harrera ona egitea, Zuzendaritzak duen xede entzule, animatzaile eta zuzentzailea betez.
9. Irakasleen baimenak ezagutu eta hauez erabakitzea, Lan Hitzarmenek diotenaren arabera.
10. Ikastolako bilera nagusietarako deiak egitea, gai-zerrendak prestatuz.

**Pedagogia-arloan**

1. Ikasturtero irakasleen taldea osatzeaz arduratzea eta Etapa bakoitzaren arlo/ordu banaketaren antolaketa itxuratzea. Berdin, dauden eta egon daitezkeen ez-irakasleekin.
2. Irakasle berriak kontratatzerakoan kontratazio irizpideak prestatzea, Artezkaritza Kontseilua nola Langileen Komitea informatuz eta Lan Hitzarmenak dioena errespetatzea. Halaber, Kontratazio Batzordea eratzea.
3. Ikastolaren Hezkuntza Proiektua prestatzea eta aplikatua izan dadin zaintzea.
4. Ikastolaren beharren arabera, epe labur nahiz luzerako egitasmo pedagogikoak prestatzea, bakarrik edo irakasleen lankidetzarekin eta, ondoren, Artezkaritza Kontseilua informatzea.
5. Urteroko egitasmo eta txosten edo memoria pedagogikoak prestatzea eta Bazkideen Batzar Orokorra informatzea.
6. Ikastolako Proiektu Kurrikularak buru daitezen zaintzea, Etapa berdineko eta desberdinetako irakasleen koordinazioa bermatuz.
7. Baliabide pedagogikoen – suntsigarri eta ez-suntsigarrien – beharrak aztertzea eta, aurrekontuen arabera, banaketa orekatua erabakitzea.
8. Ikastolaren egitasmo pedagogikoen jarraipena eta balorazioa egitea, irizpideak finkatuz eta guzti honen alderaketa irakasleekin egitea.
9. Irakasleen prestakuntza - nola eguneratze-planen egitasmoak, ikastolaren beharren arabera.
10. Irakasleen ordezkapenak garaiz antolatzea, koordinatzaileekin laguntzarekin.
11. Irakaskuntzako jarduerak eskatzen duen guraso eta irakasleen arteko harremanak eman daitezen bermatzea.
12. Ikastolak, urtero, izan ditzakeen jarduera osagarri nahiz eskolaz kanpoko egitasmoak sustatzea eta bultzatzea.
13. Hutsegite-kasuetan, Barne Araudiak dion zeregina betetzea.
14. Ikastolako pedagogia-zerbitzuen gidaritza eramatea, hala nola: liburutegia, ikus-entzunezkoak, tailerrak, Informatikako gela, etab.
15. Eta Artezkaritza Kontseiluak eska diezazkiokeen beste txosten pedagogikoen prestaketa.

**Azpiegitura-arloan**

1. Ikastolako obra, ezarkuntza edo instalazio, altzari eta beste baliabide materialen plangintza egitea, egoerak hala eskatzen duenean.

2. Ikastolako eraikinen mantenu premi nagusien berri ematea Udalarí, Mantenuko Arduradunak aurkeztutako premien arabera.
3. Ikasturtearen hasierarako konponketak, pintaketa eta baliabide materialak gauzatuak egon daitezen zaintzea.
4. Zerbitzuetako azpiegituraren plangintzan parte-hartzea, ardurak banatuz:
  - Ekintza osagarrietan.
  - Eskolaz kanpoko jardueretan.
  - Garraioan.
  - Jangelan: Enpresa eta guraso taldearen arteko bitartekaritza-lana eginez.

**Lan-legearen arloan**

1. Langileen Komitearekin eta sindikatuen ordezkariekin behar diren harremanak mantentzea.
2. Idazkariak dokumentu eta legediaren artxiboa osatuta eta eguneratuta eduki dezan arduratzea.
3. Ikastolako elkarbizitza arautuko duen Barne Araudia prestatzea, Artezkaritza Kontseiluaren oniritzira agertuz.
4. Hezkuntza Proiektua eta Barne Araudia berrikustea eta egoerak hala eskatuz gero, behar diren aldaketak proposatzea.
5. Irakasleei eta Artezkaritza Kontseiluari aztertutako eskola egutegia aurkeztea.
6. Langileen asistentzia eta garaiz iristea zaintzea.
7. Aurreko esparruetan konpondu ez diren kexa eta eskakizunak ebaztea.

**Ekonomia eta Administrazio-arloan**

1. Aurrekontuen planifikazioan esku-hartzaile izatea, aurrekontu horiek egiteko zenbait irizpide agertuz.
2. Etapetako baliabide pedagogikoen azterketa egitea eta Artezkaritza Kontseiluaren ordezkarien ohizko zenbait gastu agintzea.
3. Inbertsioak erabakitzerakoan, lehentasunak eta aurrekontuak aztertzea, proposamenak eginez.
4. Administrazio funtzionamendu-gaiak ezagutzea eta jarraipena egitea.
5. Lehendakari eta Diruzainarekin batera, kufxa eta bankuetako sinadura-gaitasuna izatea.

## **1.2. KOORDINATZAILE- TALDEA**

### **Oinarrizko esanahia**

Artezkari-tza Kontseiluan irakasleen ordezkariak direnez, Kontseiluko funtzioez gainera, koordinatzaile diren Etapa bakoitzeko koordinazio-ardura dute koordinatzaileek.

### **Osaera**

Etapa bakoitzeko irakasle batez osatuko da eta beraien hautaketa Barne Araudiak xedatutakoaren arabera izango da.

### **Funtzioak**

1. Artezkari-tza kontseilutik eta Zuzendaritza-tik jasotako edozein informazio-motaren berri ematea Etapa bakoitzari.
2. Etapetako eskabide pedagogikoak Zuzendariari bideratzea.
3. Artezkari-tza Kontseiluan hartutako erabakiak beren Etapetan garatzea eta betetzea.
4. Eskola Egutegiaz Etapetako iritziak jasotzea.
5. Etapetako Organigrama orokorraz Zuzendaria informatzea, hala nola: Etapa eta ziklo bakoitzeko arlo/ordu-entz antolaketaren banaketa, guraso bilerak, tutoretza orduak, eskolaz kanpoko jarduerak, prestakuntza, ikastaro beharrak, etab.
6. Ikastetxearen eta Etapa bakoitzeko Proiektu Kurrikularak prestatzea eta gauzatzea, ziklo eta Etapen arteko koordinazioa egitea eta Curriculumak berrikusteko jarraipen tresnak prestatzea.
7. Ziklo eta Etapen arteko sustapen irizpideak ezartzea eta ikasleen berreskurapen egitasmo orokorren prestatetan Orientazio Departamentuari lankidetzat eskaintzea.
8. Etapetako ekipamendu nahiz baliabide pedagogikoen beharrak Zuzendariari aurkeztea, dauden baliabideak, mailaz maila, arrazionalki banatuz.
9. Ikasleen diziplina eta funtzionamenduko jokabideak aztertzea, irakasleen iritziak bateratuz eta koordinatuz.
10. Etapetako bilerak prestatzea, hala behar denean, akta jasoz.

## **2. FUNTZIONAMENDU PEDAGOGIKOA**

### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolako hezkuntza egitasmoak etengabe betetzera eta berritzera daraman gestioa da, Funtzionamendu pedagogikoaren gestioa.

### **Osaera**

Funtzionamendu pedagogikoa ondorengo organoak osatzen dute:

- Organo pertsona bakarrekoak: irakasle, irakasle - tutore eta ikaslea.
- Organo kolegiatuak: Klaustroa eta Ikasle Batzordea.

### **2.1. IRAKASLEA**

#### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolako zenbait ikastalderen irakaskuntzako jardueraren arduradunetariko bat da eta ikastalde horietako ikasleen heziketa integrala garatzea izango du helburu.

#### **Mendekotasun harremanak**

Bere Etapako tutore eta irakasleekin koordinatuko da batez ere, eta Zuzendaritzapean dago zuzen zuzenean.

#### **Funtzioak**

1. Ikastolako Hezkuntza eta Curriculum Proiektuetan eraginkorki esku hartzea.
2. Curriculum Proiektua bere geletako errealitatera egokitzea.
3. Ikaslearen garapen eta gaitasunak eragitea, bere irakaskuntzako jardueraren bidez.
4. Eman dezakeen edo ditzakeen arloen programazioak garai zehatzetarako prestatzea, Etapa nahiz zikloko irakasleekin alderatu eta koordinatuz.
5. Behar dituzten ikasleei egokitze kurrikularak prestatzea Orientazio Departamentuaren lankidetzaz eta ikasle horien tutoreekin koordinatuz.
6. Tutoreak bere gain daukan ikasleaz eskatzen dion informazioa ematea eta txostena prestatzeko gertu egotea, eta hala behar izanez gero, gurasoekin ere hitz egitea.
7. Ebaluazio saioetarako ikasleen txostenak garaiz prestatzea.
8. Ikastolako lan ordutegia zehatz betetzea.
9. Ikasleen klaseetako asistentzia zehatz kontrolatzea, tutoreak informatuz.

10. Ikasleei eskolaz kanpo egiteko bidali zaien lanen kontrola eramatea.
11. Geletan lanarekiko behar den ordena eta diziplina mantentzea.
12. Ikasturte amaierako ikastaldearen txosten edo memoriak betetzea.
13. Klaustro, Etapa eta ziklo bilera ofizial guztietara agertzea eta agertu ezin duenetan Zuzendariari arrazoiak ematea.
14. Ikastolak irakasleekiko finkatuta dauzkan karguak betetzeko prest egotea eta horretarako behar diren orduak eskaintzea.
15. Bere eguneratze eta berritze zientifikoaz arduratzea.
16. Lana uztearen egiaztagiriari Zuzendariari aurkeztea, honek eskatu zain egon gabe.

## **2.2. IRAKASLE- TUTOREA**

### **Oinarrizko esanahia**

Tutorea da ikastalde baten eta ikastalde horren ikasle bakoitzaren hezkuntza prozesuaren arduradun zuzena.

### **Mendekotasun harremanak**

Bere Etapako tutore eta irakasleekin koordinatuko da batez ere, eta Zuzendaritzapean dago zuzen zuzenean.

Tutorea, irakasleaenez, irakasleari atxikitako funtzioez gainera, beste hauek ere badagozkie:

### **Funtzioak**

#### **Ikasleekiko**

1. Bere ardurapean dagoen ikasle bakoitzaren nortasun nahiz ezaugarri akademikoen ahalik eta ezagutza sakonena bereganatzea, aurreko tutore eta beste irakasleen ahoz nola idatzizko eta ikaslearen eguneroko lana behaketaren informazioak erabiliz.
2. Ikasleen ikasketak gidatzea, hala behar denean, Orientazio Departamentuari lankidetzaz eskatuz.
3. Irakasle edo tutore taldeak landutako tutoretzako planak garatzea.
4. Bere ardurapean dauden behar berezietako ikasleei curriculum egokitzapenak prestatzea, Laguntza Gelako irakaslearen laguntzaz.
5. Ikasle bakoitzarekin bere arazo, jokabide, kezka, portaera eta lan errendimenduaz hitz egitea eta baloratzea.
6. Lan ohitura eza nabarmena nola diziplina kasu larrietan, ikaslearekin egoera kritikoki aztertzea, arazoa konponbidean jarritz.

**Irakasleekiko**

1. Ikasle eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko eta arazoak konpontzeko bitartekari izatea.
2. Bere ardurapean dagoen taldeko ebaluazio bilerak zuzentzea, ikasleei buruzko informazioa bilduz eta ikasle bakoitzeko nola taldearekiko hezkuntza eta jokabideen proposamenak jaso eta garatuz.
3. Bere taldearekiko irakasle guztien programazioa eta irakaskuntza jarduera koordinatzea, Curriculum Proiektuaren arabera.

**Gurasoekiko**

1. Ikasturte hasieran ikastaldeko gurasoekin biltzea, ikasturteko planifikazioaren berri emanez.
2. Nahitaez, urtean behin ikasleen hezkuntza prozesuaz gurasoak informatzea eta, gainera, tutoreak beharrezkotzat jotzen duenean.
3. Arazo larriak aurreikus daitezkeenean nola eman direnean, gurasoekin elkarrizketatzea, konponbidean jarritz.
4. Gurasoekin ezarritako bilera egun eta ordua bien aldetik errespetatzea, justifika daitezkeen arrazoiak ematen ez diren bitartean.

**2.3. IKASLEA****Oinarrizko esanahia**

Hezkuntza eta irakaskuntza prozesuaren subjektu nagusia da ikaslea eta Hezkuntza Komunitatearen beste kide guztien egitasmo eta lanak horretara bideratzen dira.

**Mendekotasun harremanak**

Ikastolako gainerako irakasleekin harreman zuzenagoak edo zeharragoak baditu ere, bere tutorearen menpe dago zuzen zuzenean.

**Funtzioak**

Ikastolako Idearium edo Nortasun Ezaugarrietan, Ikastolak ikasleen hezkuntza prozesuaz dituen helburuak finkatzen direnez, atal honetan ikasleen zereginak baino ez dira aipatuko.

1. Klaseetara puntual agertzea, berarentzat antolatuta dauden ikasketa lanetan eraginkorki parte hartuz.
2. Gelan behar den ardura eta arretaz lan egitea, bere lan erritmoa nola besteena erraztuz.

3. Ikastetxeak, eskola bertako nahiz kanpoko ekintzetan eskaintzen dizkion bitartekoak ahalik eta ongien ustiatzea, ahalik eta emaitza onenak lortzeko asmoz.
4. Adinaren arabera, irakasleei zenbait lanetan lan metodologiaz proposamenak egitea.
5. Neska eta mutilen arteko harremanak berdintasunean planteatzea, inongo eginkizun bereziren inposaketarik gabe.
6. Irtenaldi eta txangoei buruzko proposamenak egitea tutoreari.
7. Ikaskideen pentsaerak, sinesmenak eta iritziak errespetatzea.
8. Irakasleekin eta gainerako ikasleekin adostutako akordioak betetzea.
9. Ikastolako elkarbizitza arautzen duen Barne Araudia ezagutu eta betetzea.

#### **2.4. IRAKASLEEN KLAUSTROA**

##### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolako irakasle guztiak ordezkariak bakarrean egituratzen duen taldea da Irakasleen Klaustroa.

##### **Egituraketa mailak**

Irakasleen Klaustroak bi egituraketa mota dauzka eta ondorioz bi funtzio mota desberdin ere:

1. Klaustro Organiko gisa. Kasu honetan autonomia osoa du ikastolako Gobernu Egituran parte hartzeko bere ordezkarien bidez; hala nola, langileen eskabideez erabakitzeko.
2. Ikastolako Hezkuntza Antolaketaren Klaustro gisa. Kasu honetan berriz, hezkuntza antolaketan ardura zuzena du talde bezala, baina Zuzendariaren koordinaziopean.

##### **Klaustro Organikoaren funtzioak**

1. Artezkaritza Kontseilurako bere ordezkariak hautatzea.
2. Artezkaritza Kontseiluari Zuzendaria proposatzea.
3. Lan Hitzarmenari buruzko gaiez erabakitzea.



**Hezkuntza Antolaketako funtzioak**

1. Eskola Egutegiaz proposamenak egitea.
2. Ikastolako Hezkuntza eta Curriculum Proiektuetako irizpide orokorretan eraginkorki parte hartu eta proposamenak egitea.
3. Barne Araudiaz egoki ikus daitezkeen aldaketez proposamenak egitea.
4. Ikastolako Urteko Egitamuz proposamenak egitea.
5. Ikerketa, esperimentazio eta metodologia esparruan ekimenak sustatzea.
6. Ikasleen berreskurapen eta ebaluazio irizpide orokorrez erabakitzea.
7. Eskolaz kanpoko jardueraz proposamenak egitea.

**2.5. IKASLEEN ORDEZKARIAK ETA IKASLEEN BATZORDEA**

**2.5.1. Ikasleen Ordezkariek**

**Oinarrizko esanahia**

DBHko ikastalde bakoitzak duen ordezkaria da. Ikastalde bakoitzak kurtso hasieran ordezkaria eta ordezkoa aukeratu ditu.

**2.5.2. Ikasleen Batzordea**

**Oinarrizko esanahia**

Ikasleek Hezkuntza Komunitatean izan behar duten partaidetzaz arduratzen den taldea da Ikasleen Batzordea.

**Osaera**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gela bakoitzeko ordezkariez osatuko da Ikasleen Batzordea.

Ordezkarien hautaketa prozedura nola bileren maiztasuna, Barne Araudiak xedatutakoaren arabera izango da.

**Funtzio orokorrak**

Ordezkarien Batzordeari zein mailako ordezkariei dagozkien funtzioak:

1. Ikasketa egitamu berriei buruzko informazioa jasotzea.
2. Barne Araudia ezagutu eta beraiei dagozkien elkarbizitzako arauen proposamenak egitea.
3. Eskola egutegiaren informazioa jasotzea.

4. Eskolaz kanpoko jardueraz ekimenak sustatzea.
5. Ikastola barneko bizitza hobetzeko proposamenak lantzea eta koordinatzaile-taldearen bileretan aurkeztea.

**Ordezkarien Batzordearen funtzioak:**

1. Ikasleen Batzordeko Idazkaria izendatzea.
2. Beraiei dagozkien gaiak tratatzen diren Artezkaritza Kontseiluko bileretan parte hartzea.
3. Artezkaritza Kontseilurako ordezkariak aukeratzea.
4. Ikastolaren Barne Araudiarekiko eta beraiei dagozkien gaietako aldaketan eta hobekuntzen proposamenak egitea Artezkaritza Kontseiluari.
5. Taldeko edota maila bakoitzeko arazoak agertzea eta ikastolako arduradunak informatzea, arazoak konponbidean jarritz.
6. Eskola orduz kanpoko lana hezkuntza jardueretarako egutegiak egiteko irizpideen proposamenak agertzea Artezkaritza Kontseiluari.
7. Ordezkariak diren taldeetako ikasleei Artezkaritza Kontseiluan nola Ordezkarien Batzordean tratatutakoaren eta erabakitakoaren berri ematea.
8. Klase uztearen proposamenaren kasuan, 160/1994ko Aginduak dion bezala jokatzeko.

**Gelako ordezkarien funtzioak:**

1. Ordezkarien Batzordeko bileretara joatea eta arazoan azterketetan eta erabakietan parte hartzea.
2. Ordezkatzen duten taldearen erreklamazioak eta iradokizunak ikastolako hezkuntza arduradunari (zuzendaria, ikasketa burua, DBHko koordinatzaileari, ...) agertzea.
3. Taldeko ikasleekin arteko bizikidetzaren (harreman onak) sustatzea.
4. Ikastolako arduradunarekin eta irakasleekin lan egitea beronen funtzionamenduaren onerako.
5. Ikastolako instalazioen eta materialaren erabilpen egokia zaintzea.

### **3. FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBOA**

#### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolaren Ekonomia eta Administrazio guztia garatzen duen funtzionamendu mota da.

#### **Osaera**

Oraingoz, ikastolako Idazkariak du eginkizun honen ardura.

#### **3.1. IDAZKARIA**

##### **Oinarrizko esanahia**

Idazkaria da, Ekonomia eta Administrazio arloaren funtzionamenduko arduradun eta erantzule.

##### **Mendekotasun harremanak**

Zuzendaritzapean dago bere eguneroko eginkizunetan, Zaintza Batzordea aldian behin informatu behar duelarik.

##### **Funtzioak**

###### **Gai orokorretan**

1. Azpiegitura, Lan lege eta Ekonomia eta Administrazio arloek eskatzen duten lanaren gestioa eramatea.
2. Aldian behin gai hauetaz Zuzendaria eta Zaintza Batzordea
3. Harreman estuak edukitzea Zuzendari eta irakasleekin bere lanarekin zerikusia duten gaiez.
4. Hezkuntza Komunitateko edozein kideri kasu egiteko prest egotea, bere laneko gaiez.

###### **Azpiegitura arloan**

1. Ikastolako instalazioen obra eta konponketako irakasleen eskabideak jasotzea, Mantenuko Arduraduna informatzea eta eskabide horiek bete daitezen zaintzea.
2. Mantenuko Arduradunaren laguntzaz ikastolako altzarien inbentarioa egitea eta eguneratuta edukitzea.
3. Baliabide pedagogiko garrantzitsuenen inbentarioa egitea eta eguneratzea, Koordinatzaileen laguntzaz.

4. Eskolako beste zerbitzuen – Ekintza osagarri, garraio, eta abarren – gestio ekonomikoaz arduratzea.

**Lan Lege arloan**

1. Dokumentu eta Legediaren artxiboa osatu eta eguneratuta edukitzeaz arduratzea.
2. Udarregi Ikastolako beste dokumentuak: Estatutuak, Hezkuntza Proiektua, Barne Araudia, izkribu eta aktak gordetzeaz arduratzea.
3. Kontratuek eskatzen duten gestioaz, zuzen zuzenean arduratzea.

**Administrazio arloan**

1. Familia, ikasle, irakasle eta ikasle ohien zerrendak osatu eta eguneratzea, fitxak egitea, dokumentazio guztia gordez eta zainduz.
2. Telefono deiak artatzea.
3. Korrespondentzia jaso eta banatzea, ofizialak diren dokumentuak datatuz eta artxibatuz. Halaber, Udarregitik bidaltzen direnak, bideratzea.
4. Matrikulazioaren agiriak bete eta ikasleen espediente, ziurtagiri, akta, bekak, etab. prestatu, tramitatu eta gordetzea.
5. Bere lanarekin zerikusia duten gaiez familiak informatzea, idatzi eta agiriak prestatu eta helaraziz.
6. Hezkuntza Administrazioa eta beste erakunde publiko nahiz pribatuetara bidali behar den dokumentazioa, zehatz bete eta garaiz bidaltzea: idazkiak, Kontzertuetako agiriak, ikasleen aktak, Asegurantzako Sozialeko agiriak, IRPF, etab.
7. Irakasle eta ez irakasleen alta eta bajen kontrola egun egunean edukitzea.
8. Kobrantza eta ordainketak egitea eta errezioben itzulketak kontrolatu eta eguneratzea horrek suposatzen duen gestioaren lehen arduradun eta erantzule izanez.
9. Kutxa, banku eta salmenta etxeekiko ohizko harremanez arduratzea.

**Ekonomia eta Administrazio arloan**

1. Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen ondarearen inbentarioa prestatu eta eguneratzea.
2. Epe motz nahiz luzerako aurrekontuak prestatzea eta Zuzendariari eta Zaintza Batzordeari aurkeztea.
3. Finkatutako Kontabilitate Egitamu Orokorraren eragiketa kontable guztiak burutu eta artxibatzea.

4. Aurrekontuak egiterakoan, irizpide teknikoak aztertzea, inbertsio, diru sarrera, gastu, ikasleen kuotak eta pertsonalaren ordainketak kontuan hartuz.
5. Urteroko egitamu eta txosten edo memoria ekonomikoa prestatzea, Zaintza Batzordeari aurkeztuz.
6. Zaintza Batzordeak bere bileretarako eskatzen dion dokumentazioa prestatzea.
7. Arlo honekin zerikusi zuzena daukaten erakundeekin harremanetan jartzea, hala nola: Hezkuntza Saila, Ordezkaritza, Foru Aldundia, Udala, etab.
8. Beste zenbait zerbitzu osagarrien – irtenaldi, eskolaz kanpoko kirol jardueren...– gestio ekonomikoaz arduratzea, Zuzendaria eta Zaintza Batzordea informatuz.
9. Hiru hilabete oro ekitaldi ekonomikoaren berri ematea Zaintza Batzordeari.
10. Udarregi Ikastolaren dokumentu historikoen artxiboa antolatu eta gordetzea.
11. Eta Artezkaritza Kontseiluak ardura diezazkiokeen gainontzeko guztiak.

#### **4. BESTE ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUA**

##### **4.1. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA**

###### **Oinarrizko esanahia**

Orientazio Departamentua, ikastolako hezkuntza prozesuari orientazio zerbitzua eskaintzen dion Departamentua da.

Zeregin hirukoitza du: diagnostikatu, tratatu eta gidaritza psikopedagogiakoaren zerbitzu iraunkorra eskaintzea.

###### **Mendekotasun harremanak**

Harreman funtzionalaren aldetik, Zuzendaritzaren menpe dago.

###### **Funtzioak**

###### **Ikasleei dagokienez**

1. Ikasleen nortasun, hizkuntza eta ikasketaren eragozpenen diagnostikoa egitea.
2. Ondoren aipatzen diren ikasleen ezaugarriekiko arakatze objektiboa egitea: gaitasuna, jarrera, nortasuna, eskola nahiz etxeko lan ohiturak, ikasketen errendimendua, interesa eta familia nahiz gizartearen ingurukoa.
3. Behaketa sistematikorako jarraibideak prestatzea.
4. Ikasle talde desberdinen ezagutza sakontzea.

5. Aurrez aipaturiko zereginen txostenak prestatzea, arazoan arazoak aztertuz eta Tratamendu programak prestatuz, ikastolan egin daitezkeenak garatuz eta ezin direnak kanpoko espezialistengana bideratuz.
6. Laguntza Gelako ikasleen curriculumen egokitzapenak jarraitzea, irakaslearekin harreman estuak mantenduz.
7. Ikasleari bere buruaren ezagutzaz eta taldearekiko harremanen ezagutzaz orientatzen laguntzea.
8. Ikasketa garai desberdinetan sor daitezkeen arazoan aurrean orientabidea eskaintzea.
9. Eskolatzeko amaieran ondorengo ikasketa edota lanarekiko orientabidea eskaintzea.

**Tutore eta irakasleei dagokienez**

1. Hauen ikasleekiko eskabideak jasotzea, gidaritza eta lankidetzak eskainiz.
2. Tutoreen eginkizunak indartzea eta aholkuak ematea tutoretza jarduerak planifikatzerakoan.
3. Etapa desberdinetako ikasleen orientazio eta berreskuratze egitamuak tutore eta irakasleei prestatzen laguntzea eta koordinatzea.
4. Departamentuaren urteroko txostena prestatzea.

**Gurasoei dagokienez**

1. Beren seme-alabei ikastolan egindako diagnostiko eta tratamenduaz informatzea, dagozkien esku-harmena eta lankidetzak eskatuz.
2. Irakaslearen eskolatzeko-hasieran nola ondorengo garaian bere garapena mesedetu
3. lezaketen jarrerari buruzko gidaritza eskaintzea.

**Ikastolaz kanpoko baliabideei dagokienez**

1. Ikastetxetik at laguntza behar duen ikaslea dagoen kasuan, ikaslea tratatu duen espezialista edo leku espezializatuarekin harreman estuak mantentzea.
2. BERRITZEGUNEAREKIN eta antzeko zerbitzuak dituzten beste ikastetxeekin aldiakako harremanak mantentzea.

## **4.2.ESKOLAZ KANPOKO KIROL- ZERBITZUA**

### **Oinarrizko esanahia**

Gorputz Hezkuntza ikaslearen dimentsio bat denez, beste edozein arloren curriculumak bezala garatzen da ikastorduetan, baina ikastolak eduki badauka gero eta gehiago hedatzen doan eskolaz kanpoko egitura, arduradun eta antolaketa batez osatzen dena.

Ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak dira kirol-zerbitzu honen arduradunak eta ondoren aipatzen diren zereginak arduradun hauei ikastorduz kanpoko kirol antolaketan dagozkienak dira.

### **Mendekotasun harremanak**

Ikastolako Zuzendaritzaren menpe daude eta funtzio hauek dituzte:

#### **Funtzioak**

1. Ikastolako zuzendaritzaren lankidetzaz, ahalik eta kirol aukera zabalena eskaintzea ikasleei.
2. Ondo pasatzeaz gain, ikasleen elkarlana, elkarrekiko errespetua eta adiskidetasunaren baloreak lantzea.
3. Ikasleak, norberaren diziplinan, entrenamendu nahiz partiduetako asistentzian, entrenatzaileen esanak betetzen eta epaileen erabakiak onartzen, trebatzea.
4. Ikasleari kirol desberdinetan parte hartzeko aukera ematea.
5. Euskal Herriko zenbait herri-kirol sustatzea.
6. Ondoko kirolak antolatzea: atletismoa, herri-kirolak, futbola, eskubaloia, pilota, mahai-tenisa, igeriketa, boleibola, belar-hockeya, areto-futbola, saskibaloia, etab.

#### **Egitekoak**

1. Kirol desberdinetan aritu nahi duten ikasleen zerrendak prestatzea.
2. Kirol desberdinetarako entrenatzaileak aurkitzea eta hauek egoki entrenatzen dutenaz arduratzea.
3. Foru Aldundiarekin aldizkako harremanak edukitzea, kirol sustatze kanpaina desberdinak aztertzea eta berauek eskaintzen dituzten diru-laguntzak eskuratzeko eskabideak bideratzea.
4. Udala eta Udal Kirol Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearekin harremanak mantentzea gai hauekiko:
  - a. Spontsorrak edo babesleak aurkitzea.
  - b. Kirol desberdinek eskatzen dituzten giza baliabide eta baliabide materialen
  - c. Aurrekontuak prestatzea Artezkaritza Kontseiluari aurkeztuz.

5. Kirolek eskatzen dituzten baldintza ofizialak betetzea.
6. Desplazamenduak antolatzea eta lehiaketan emaitzen jarraipena egitea.
7. Ikasle bakoitzaren gaitasunen jarraipena egitea.
8. Ikasturtearen hasieran kirol-egitامua prestatzea eta bukaeran txostena egitea, Zuzendaria informatuz.

#### **4.2.1. Entrenatzaileak**

##### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolako eskolaz kanpoko kirol taldeetako arduradun zuzenak dira entrenatzaileak.

##### **Mendekotasun harremanak**

Ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakasle arduradunen koordinaziopean daude kirol jardueretan, baina entrenatzaileen azken harremanak Zuzendaritzaren menpe daude.

##### **Funtzioak**

1. Bere talde edo ekipoko entrenamenduak zuzentzea. Taldearen arduraduna denez gero, ikasleak gidatzea, zuzentzea eta kirol arduradunarekin harremanak mantentzea.
2. Taldeari buruzko informazioa jasotzea eta jokalaria era zuzenean gidatzea, bai kirol arloan, bai eta arlo pertsonalean ere.
3. Udarregi Ikastolak kirolaren inguruan onartu dituen baloreak lantzea: entrenatzaileen esanak betetzea, bere talde nahiz beste taldeetako jokalaria errespetatzea, epaileen erabakiak onartzen trebatzea, norberaren nortasuna sendotzen laguntzea.
4. Entrenamenduak teknikoki ahalik eta ongien eramatea: beroketa-ariketak, kirol horren teknikan trebatzea, jokalaria guztien eta bakoitzaren segimendua egitea, etab.
5. Entrenamenduetarako behar duen materiala behar bezala antolatzea eta ondoren materiala jasotzea.
6. Aldez aurretik, taldeak jokatu behar dituen partiduen berri izatea eta horren berri zehatz ematea: eguna, ordua, lekua, desplazamendua norekin. Eginkizun horren helburua garbi legoke, hots, ikaslea garaiz ohartaraztea.
7. Halaber, partiduan zehar joera eraginkorra hartzea: ikasleak animatzea, motibatzea eta hain trebeak ez diren jokalaria ez baztertzea.
8. Entrenamenduetan monitoreek jarrera ona eta aktiboa izan behar dute, jokoetan parte hartuz eta motibazioa landuz eta transmitituz.



9. ESKOLA KIROLAREN helburu orokorrak ezagutzea:
  - a. Guztien parte-hartzea
  - b. Ikaslearen heziketa integrala bermatzea (pertsonekitate)
  - c. Kirol ohiturak sortzea
10. Erabiltzen den hizkuntza eta moduak zaintzea, hauek egokiak izan daitezen.

### **4.3. GARRAIOA**

Garraioaren zerbitzuan bi alderdi bereizi behar dira: ikastolak garraio zerbitzurako kontratatzen duen enpresak bete behar dituen baldintzak eta autobusetako arduradun edo begiraleen eginkizunak.

#### **4.3.1. Enpresak bete behar dituen baldintzak**

##### **Enpresaren legezko arauak**

Ikastolak kontratatzen duen enpresak legeak eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko ditu.

1. Autobusek ibilbideetan eramango dituzten ikasle-kopuruak legeak araututakoak izango dira.
2. Autobusek eta txoferrek legezko betebeharrak guztiak osatuko dituzte: txoferrei eskatzen zaizkien garaian garaiko berrikustapenak, autobus bakoitzaren antzinatea eta berrikustapenak, eskola garraiorako baimen bereziak, aseguruak, etab.
3. Garaian garaiko aginduak ezagutzea eta betetzea, aldi berean aldaketa guztien berri ikastolari ematea.

##### **Enpresarekiko Kontratazioa eta Eginkizunak**

###### **Kontratazioa**

Enpresarekin sinatzen diren kontratuak ikasturtekoak izango dira, beti ere enpresa horrek sinatutako akordioak betetzen dituen neurrian.

Ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturteko baldintzak negoziatzen has litezke enpresa eta ikastola.

###### **Eginkizunak**

Lehen aipatutako lege baldintzez gain, beste eginkizun hauek ere bete beharko ditu enpresak:

1. Ikastolak finkatuta dauzkan ibilbideak eta geldioneak bere osotasunean betetzea.
2. Ibilbide eta geldione guztietako ordutegiak, ahalik eta zehatzen betetzea.

3. Txoferrek behar duten zuhertasunez gidatzea, batez ere auzoetako ibilbide estuetan.
4. Ikasleen autobuseko sarrera eta irteera garaietan, txoferrek ez dituzte autobusak martxan jarriko ikasleak esertzen edo ateratzen, hurrenez hurren, ez diren bitartean.
5. Ikastolako garraio-zerbitzukoak ez diren ikasleak eta pertsonak autobusean ez onartzea, aldez aurretik ikastolako Artezkaritza Kontseiluaren baimenik ez badute behintzat.
6. Autobusean begiralerik ez balego, ikasleen arteko arazo arruntez arduratzea eta arazo garrantzitsuagoa sortuko balitz, Zuzendaria garaiz informatzea.

#### **4.3.2. Autobusetako begiraleak**

##### **Oinarrizko esanahia**

Begiraleak, autobusak erabiltzen dituzten ikasleen arduradunak dira ibilbide osoan zehar. Beraz, beraiei dagokie autobusa egunero erabiltzen duten ikasleen erantzukizun zuzena.

##### **Mendekotasun harremanak**

Eskola garraioaren gaiak eta arazoak zuzentzerakoan Zuzendaritzapean daude.

##### **Arduradunak aukeratzeko irizpideak**

1. Ikastolarekin lehendik lan-harremanak eduki izana.
2. Ikasleen guraso edo senide izatea.
3. Euskara jakitea.
4. Ikasleekin lan egiteko gai izango dena. Azken hau konprobatzeko Artezkaritza Kontseiluak behar dituen datuak jaso ahal izango ditu.

##### **Araudia eta begiraleen funtzioak**

1. Jaso behar duten ikasleren baten bila inor ez badao, gurasoei telefonoz deitzea eta eskolara bueltatzea, gurasoek bertan jaso dezaten.
2. Ikasleren batek ikastolan autobusa galduko balu, autobus zaintzailea gurasoekin telefonoz harremanetan jarriko da, ikaslea nola jasoko duten argitzeko.

3. Begiraleek, erabiltzaileek identifikatzeko txartelak daramatzatela ziurtatzea, txikiek batez ere.
4. Erabiltzaileek egunen batean bueltatzeko autobusa ez balute erabili behar, gurasoek autobus zaintzaileari abisua pasako liokete.
5. Geltokian ordurako egongo dira, espaloian edo galtzadatik kanpo. Geltokira iristean ere arau berdina errespetatuko da.
6. Ikasleek autobusean eserita joan behar dute eta segurtasun uhala jarrita; zaintzaileei kasu egin eta ikaskideak eta instalazioak errespetatu behar dituzte.
7. Garraiora sartu eta irteterakoan poliki, lasai, txandak errespetatuz eta bultzatu gabe ibiliko dira.
8. Garraiatzerakoan ez dute ezer jango edota edango, autobusa zaintzen eta txukun uzten saiatuko dira.
9. Gidaria lasai utziko dute. Eserita egin litezkeen jolasak egingo dituzte edota hitz egiten jardungo dira.
10. Garraioa gelditu arte eserita mantenduko dira; altxatzean, norberak bere gauzak hartuko ditu, ezer ahaztu gabe.
11. Ikasleen jarrera egokia ez bada, eta gurasoek hiru abisu jasotzen badute, Artezkaritza bilduko da eta ikasle horren autobuseko kanporaketa proposa dezake.

#### **4.4. ESKOLA JANGELAKO ZERBITZUA**

##### **Oinarrizko esanahia**

Ikastolan matrikulatutako haurrei eskaintzen zaien zerbitzua da. Sukaldea, tresneria eta horren mantenua udalarenak dira.

##### **4.4.1. Lan-harremanen esparrua**

Lan atalari dagokionez, ikastolak ez du inongo lan-harremanik edukiko jangelako langileekin, enpresak zuzenean kontratatzen duen langilea delako. Beraz, enpresa eta langileen arteko harreman guztiak beraien arteko gaitasunekoak izango dira.

Dena den, bere garaian erabaki bezala, ondorengo irizpideak erabiltzeko eskatuko zaio enpresari langileak kontratatzeko garaian:

1. Langileak, eskola jangela erabiltzen duten ikastetxeetakoak izatea. Hau da, eskola jangela erabiltzen duten ikastetxeetako batean hauren bat matrikulatuta edukitzea.

2. Ikastetxeetako familiarik aurkeztuko ez balitz, ikasle ohien familietakoak izatea, eta hauen ezean, herrikoa izatea.
3. Euskara jakitea.
4. Ikasleekiko harremanetan egokia izatea.

#### **4.4.2. Funtzionamendu esparrua**

Funtzionamendu esparruari dagokionez, pertsona-funtzio hauek bereizi behar dira: Zuzendariaren funtzioak, Idazkariaren funtzioak, Guraso Delegatuaren funtzioak eta Eskola Jangelako Langileen funtzioak.

##### **4.4.2.1. Zuzendariaren funtzioak**

Zuzendariari dagokio enpresarekin gestio orokorrak egitea.

###### **Funtzioak**

1. Urteko kontratuak ezagutzea eta familiek zerbitzuarekiko dituzten iritziak jasotzea.
2. Osasun eta Hezkuntza Sailek arautzen dituzten osasun eta garbitasun baldintzak enpresak bete ditzan eskatzea. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Osasun Ezarketa Orokorrean erregistratuta egotea.
3. Janarien kalitatea eta barietatea exijitzea.
4. Urteroko prezioak negoziatzea edo jangela erabiltzen duten familien Delegatuarengan eskuordetzea eginkizun hau.
5. Gurasoek jangelarekiko daukaten iritziaz ikastolako Batzorde Zuzendaritza informatzea eta hauek hala eskatzen badute, enpresaz aldatzea, beste enpresa bat kontratatzeko egin behar diren gestioez arduratuz.

##### **4.4.2.2. Idazkariaren funtzioak**

Idazkariari dagokio administrazio-gestioez arduratzea.

###### **Funtzioak**

1. Jangela erabiliko duten ikasleen zerrenda ikasturtero osatzea eta eguneratuta edukitzea.
2. Ohiz jangela erabili ez eta egun bat edo epe motz baterako jangela erabili nahi duten familien eskabideak jasotzea eta enpresa, aldez aurretik eta garaiz, ohartaraztea, bidali behar duen janari-kantitatea, bidal dezan. Horretarako, familia hauek Idazkaria, aldez aurretik eta garaiz, ohartarazi behar dute.
3. Ohiz jangela erabiltzen duten, baina epe motz baterako erabiliko ez duten familien deiak jasotzea eta enpresa, aldez aurretik eta garaiz, ohartaraztea,

bidali behar duen janari-kantitatea bidal dezan. Guraso hauek aurreko puntuak bezala jokatu dute.

4. Altea eta baje berri ematea enpresari.

#### **4.4.2.3. Guraso Delegatuaren funtzioak**

Berari dagokio gurasoen kezka jasotzea eta ikastolari edota enpresari bideratzea. Bi ikasturterako izango da hautatua, aurrerantzean ere berraukeratua izan daitekeelarik, berak eta gurasoek hala nahi badute.

##### **Funtzioak**

1. Zuzendariaren eskuordetzez, ikasturtero menuen prezioak eta jangelaren beste baldintzak negoziatzea, hala nola: janariaren kalitatea, langileen profesionaltasuna, etab.
2. Gurasoen bileretan, berauek zerbitzu honekiko hartzen dituzten konpromisoak bete ditzaten exijitzea, hala nola: fakturak garaiz ordaintzea, idazkariari oharrak ondo eta behar den denboraz ematea, altea eta baje berri ematea, etab.
3. Ikastolako ordezkariekin beharrezkotzat jotzeko bilerak antolatzea.


#### **4.4.2.4. Eskola Jangelako Langileen funtzioak**

Beraiei dagokie jangelak eskatzen duen eguneroko lanaz eta erantzukizunaz arduratzea. Beren lan-harremanak nola ordutegia enpresarekin bideratuko dituzte zuzenean.

##### **Funtzioak**

1. Jangela prest eta garbi edukitzea beti, bazkaldu aurretik eta ondoren.
2. Ikasleei beti euskaraz hitz egitea.
3. Bazkaldu aurretik nahiz ondoren ikasleek eskuak garbi ditzaten zaintzea.
4. Bazkal garaian ikasleen harremanak eta komunikazioa hobeto izan daitezen, ahalik eta era egokienean taldekatzea: adinez adin, ahalak eta errespetatuz egoki ikusten bada, etab.
5. Ikasle guztiek jan dezaten zaintzea, txikiak bereziki zainduz.
6. Txikienei komunera joaten laguntzea eta fardela edo muda aldatu behar bada, aldatzea.
7. Jaten etengabeko arazoak dauzkaten ikasleen gurasoak informatzea.

8. Ikasleren batek min hartuko balu, lehen laguntza eskaintzea eta, istripuaren larritasunaren arabera, ikastetxearen prozedurei jarraituz dagokion lekura bideratzea.
9. Ikasleen etengabeko portaera okerren aurrean neurriren bat hartzea, gero gurasoak eta ikastola informatuz.
10. Bazkaldu ondoren, jangelatik atera arte, ikasleez arduratzea.



# **UDARREGI IKASTOLAKO BARNE ARAUDIA**



## **SARRERA**

Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan finkatutako helburuak gara eta lor ditzagun, Hezkuntza Komunitateko kide guztien harremanak arautu behar dira eta hauek Barne Araudian zehazten dira.

Barne Araudi hau, beraz, Udarregi Ikastolako kide bakoitzari dagokio, hots:

- Guraso, ikasle eta irakasleei.
- Bazkide laguntzaileei.
- Udalaren Ordezkaritzari, eta
- Ikastolarekin harreman zuzena edo zeharkakoa duen edonori.

## **PROZEDURAK**

### **1. BATZAR OROKORRA**

#### **1. Atala. Bazkideen Batzar Orokorra**

Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 14-20. orr., 22-27. atalak.

#### **2. Atala. Bazkideen Eskubideak eta Betebeharrak**

Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 5-13. orr., 11-20. atalak.

#### **3. Atala. Mahaiaren osaketa eta Batzarraren garapena**

Artezkaritza Kontseiluak osatuko du Batzarreko mahaiak, Batzarreko Lehendakaria eta Idazkaria, Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartekoak izango dira.

Lehendakariak zuzenduko ditu Batzarrak; halaber, gaiak agertu, eman daitezkeen eztabaidak eta proposamenak bideratu eta gai-zerrendan azaltzen ez diren gaiak sartu ala ez erabakitzea berari dagokio.

Idazkariak bileraren akta jasoko du, bertan agertu diren iritzien laburpena, onartutako erabakien testua eta, bozketa-kopurua eta hauen emaitzak idatziko ditu. Akta hori, hurrengo Batzarrean irakurri eta onartu ondoren, Lehendakariak eta bi batzarkidek sinatuko dute.

Batzarkideek beren iritzia errespetuz agertuko dituzte, inongo iseka eta irainik gabe, honelako jokaerak hartzen dituztenei Artezkaritza Kontseiluak Batzarra uzteko eskatuko die.

Arazo pertsonalak, norberarenak edo bestearenak, Batzarraren gaiekin zerikusirik ez dutenean, ez dira onartuko, gai horiek Artezkaritza Kontseiluko bilereetan agertu beharko dira.

## **2. ARTEZKARITZA KONTSEILUA**

### **4. Atala. Batzordearen osaera eta jatorria**

(Ikus Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuak, 20-27. orr., 28. atalak)

9 izango dira Artezkaritza Kontseilua osatuko duten kideak. Kideen jatorria, hau izango da:

- Gurasoen 5 ordezkari.
- Irakasleen 4 ordezkari
- Zuzendaria.

Artezkaritza Kontseilua hiru astean behin elkartuko da aurrez erabakitako egun eta orduan, Zuzendariak bileraren gai-zerrenda kontseilu kideei hiru egun lehenago gutxienez eskuratu beharko die.

### **5. Atala. Karguen iraunaldia eta uztea**

Artezkaritza Kontseiluko karguen iraunaldia hiru urtekoa izango da, ondoren aipatzen diren kasuena ezik: Lehendakaria eta Lehendakariordearena, lau urtekoa; ikasleen ordezkariena, bikoia.

Lehendakaria eta Lehendakariordea bi urtez behin hautatuko dira txandakatuz.

Gainerako gurasoak honela aldatuko dira: urte batean bat, hurrengoan bi eta hurrengoan inor ez.

Irakasleak, guztiak alda daitezke iraunaldia bukatzean.

Zuzendariak jarraitu ahal izango du, Zuzendari bezala jarraitzen badu.

Ikasleen ordezkariak ere, guztiak alda daitezke.

Dena den, berezko epea bukatu baino lehen, edonork utz dezake kargua, Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen Estatutuetako 19. atalean aipaturiko egoeretan.

### **6. Atala. Erabakien balioa**

Artezkaritza Kontseiluan hartzen diren erabakiak, gehiengo arruntez gauzatuko dira, baina beti ere kontseilu kideen presentziak erdia izan beharko duelarik. Dena den, norbait bidaltzeko erabakia guztien hirutik biko erabakiaz gauzatuko da.

Boto berdinketaren kasuan, Lehendakariaren kalitatezko botoaz erabakiko da.

### **3. ZUZENDARIA**

#### **7. Atala. Zuzendariaren hautaketa eta karguaren iraunaldia**

Zuzendaria, Artezkaritza Kontseiluak aukeratuko du, Irakasleen Klaustroaren erabakia ezagutu eta aztertu ondoren.

Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteko Batzar Orokorrak berretsi behar du hautatu ondorengo lehen Batzarrean.

Hiru ikasturterako izendatuko da eta berraukeratua izan daiteke.

Zuzendariak kargua uzten duenean, lehen betetzen zuen lanpostura itzuliko da.

#### **8. Atala. Zuzendariak kargua uzteari buruz**

Zuzendariak utz dezake bere kargua epealdia amaitu aurretik, ondorengo egoeretan:

1. Berak eskatuta, uztearen arrazoiak Lehendakariari idatzirik agertuz.
2. Irakasleen hirutik bik Artezkaritza Kontseiluari eskatzen dioenean, eskabidearen arrazoiak agertuz.
3. Artezkaritza Kontseiluaren hirutik bik hala eskatzen duenean, bere gestioa ontzat ematen ez duelako.

### **4. KOORDINATZAILE- TALDEA**

#### **9. Atala. Koordinatzaile Taldearen hautaketa eta iraunaldia**

Zuzendariak, koordinatzaileak aukeratzeko gaitasuna izango du, baina egingo ez balu, eta koordinatzaileak bere kabuz aurkeztuko ez balira, Etapan inoiz aukeratu gabekoen artean aukeratuko lirateke, Etapa bakoitzak egokitzat jotzen duen prozeduraren arabera.

Koordinatzaileen iraupena, 3 urtetakoa izango da.

#### **10. Atala. Koordinatzaile Taldearen bilerak eta erabakiak**

Astero elkartuko dira Zuzendariaren koordinaziopean, ikasturtearen hasieran erabakitako egunean, ikastorduen barruan. Erabakiak hartzean, taldearen adostasunez hartuko dira eta adostasunik emango ez balitz, Zuzendariari dagokio erabakiaren ardura eta ahalmena.

## **5. IRAKASLEAK ETA TUTOREAK**

### **11. Atala. Etapako bilerak eta erabakiak**

Etapako bakoitzeko irakasle eta tutoreak astero elkartuko dira koordinatzailearen koordinaziopean, beraiei dagozkien gaiak aztertu eta erabakitzeko. Horrez gain, ikastetxearen, Etapako Curriculumak edota bere lanarekin zerikusi zuzena daukaten gaiak lantzeko beste egun bat beharko balute, bi egun jakin izendatu eta bete beharko dituzte. Edozein Etapa, astean bi aldiz bildu beharrean aurkitu balitz, bigarren hori astero egin beharrean, hamabostean behin egiteko aukera edukiko luke. Bileretara joatea derrigorrezkoa izango da.

Bilerak, erabakigarriak direnean, gehiago arruntez gauzatuko dira.

## **6. IRAKASLEEN KLAUSTROA**

### **12. Atala. Bileren deialdiak eta ezaugarriak**

Klaustroa organikoa denean eta lan-baldintzak aztertu eta erabakitzeko elkartzen denean, bilera-deialdia Langileen Komitearen ardura izango da.

Greba-deialdiak aztertzeko bileren ardura ere, Langileen Komitearena izango da.

Artezkari-tza Kontseilurako Klaustroko Irakasleen ordezkaria(k) aukeratu behar bad(ir)a, hauek hautatzeko bileren ardura ere, zuzendariarena da.

Beste guztienak eta bereziki gai pedagogikoen bileren ardura ere, Zuzendariarena izango da.

Halaber, irakasleek ere klaustroa konbokatze eskubidea izango dute, irakasle guztien hirutik batek, gutxienez, hala eskatzen dutenean.

Bakoitzak, berari dagozkion bileren laburpena jaso beharko du Akta batean.

Bilera pedagogikoetarako asistentzia derrigorrezkoa da. Norbaitek ezingo balu joan Zuzendariari arrazoitu beharko dio. Zuzendariak, ikasturtean zehar, bi klaustro-bilera antolatuko ditu gutxienez: bat, ikasturtearen hasieran, urteko egitamuaren berri emateko eta, bestea, ikasturtearen bukaeran balorazioa egiteko.

### **13. Atala. Klaustroaren erabakiak**

Erabakiak, bertan elkartutako botoen gehiago arruntez hartuko dira, bozketa ezkutukoa izango da.

Norbaitek ezingo balu klaustroa joan, bere botoa beste batengan ordezkatu ahal izango du. Pertsona batek ezingo du bi ordezkotako boto idatzi baino gehiago bilerara eraman. Ordezko boto idatzi horretako gutun-azalean ordezkatuaren izena jarri beharko da. Botoen zenbatzeaz arduratzen den pertsonak, botoa kutxatilan sartu aurretik gutun-azaletik atera dezake, pertsona horren anonimata gordez.

## **7. IKASLEEN ORDEZKARIAK ETA IKASLEEN BATZORDEA**

### **14. Atala. Ikasleen ordezkarien hautaketa**

DBHko ikastalde bakoitzak ikasturte hasieran ezkutuko bozketa bitartez aukeratzen du. Hautaketa honetan boto gehien jaso duen lehenengoa ordezkaria izendatuko da eta bigarrena ordezkoa.

### **15. Atala. Iraunaldia**

Bere iraunaldia 2 urtekoa izango da, jarraitu nahi duten ordezkariak berraukeratuak izan daitezke.

### **16. Atala. Gelako ordezkariaren eskubideak**

Ordezkariek ezin izango dira zigortu ikasleen bozeramaile zereginengatik, indarrean dagoen araudiaren baldintzen arabera.

### **17. Atala. Gelako ordezkariaren eta ordezkoaren uztea**

Aukeratu dituzten ikasleen gehiengo absolutuak hala iritziko balu, eta aurrez tutoreari zuzendutako txosten arrazoitu bat eginez, ordezkari eta ordezkoen ardura-uztea erabaki dezake.

Kasu honetan, hauteskunde berri baterako deialdia egingo da, hamabost egun pasa baino lehenago.

### **18. Atala. Ikasleen Batzordearen osaera**

Ikasleen Batzordea DBHko bigarren zikloko ikasleen artetik, maila bakoitzetik bi aukeratuko dira, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

Artezkari-tza Kontseiluan, parte hartuko duten kideen kopurua zikloan dauden taldeen arabera gauzatuko da:

- 4 taldez osatutako zikloa: 3 kide
- 3 taldez osatutako zikloa: 2 kide
- 2 taldez osatutako zikloa: 2 kide

### **19. Atala. Iraunaldia**

Karguen iraupena 2 urtetakoa izango da eta ahal bada behintzat, Artezkari-tza Kontseilura heltzen diren ordezkari guztiak, berriak ez izatea ahalbidetuko da.

### **20. Atala. Bilerak eta erabakiak**

Ikasleen batzordea hiruhilabetekoan behin elkartuko da etapako koordinatzailearekin eta zuzendariarekin beraiei dagozkien gaiak aztertzeko. Halaber, Artezkari-tza

Kontseiluan gairen bat aurkeztu nahi izanez gero, lehendabizi zuzendariari azalduko zaio, honek bilerako gai zerrendan sar dezan.

**21. Atala. Ordezkarien Batzordearen eskubideak**

1. Ordezkarien Batzordea, osoki edo komisioan, Artezkaritza Kontseiluaren aldeik entzuna izatea, batik bat gai hauetan.
  - Azterketak eta frogak egitean.
  - Ikastolako kultur, atsegintze eta kirol jardueretako antolaketan eta garapenean.
  - Ikastolak bere hezkuntza zereginak bete gabe edo baztertuta uzten dituen erreklamazioen aurkezpen kasuetan.
  - Ikasleen hezkuntza errendimenduan objektibotasunaren eta eraginkortasunaren balorazioaz erabilitako argudioetan eta erreklamazioetan.
  - Hutsegiteengatik ikasleei eginiko zigor proposamenek espedientea irekitzea daramatzatenean.
2. Artezkaritza Kontseiluko bileretako aktak ezagutzea eta kontsultatzea nola ikastolako beste edozein dokumentazio administratibo ere, zuzendariaren baimenaz, eta beti ere, pertsonen intimitatearen eta hezkuntza ebaluazioaren prozesuen ohiko garapenaren aurka ez doanean.

**22. Atala. Ordezkarien funtzio-araudiaren aldaketak**

1. Araudi honi, legez dagozkion aldaketak, zuzendariak egingo ditu, ondoren Artezkaritza Kontseilua, Ordezkarien Batzordea eta irakasleak informatuz.
2. Hezkuntza komunitateko beste edozein sektorek (guraso, ikasle, irakasleek) legearen aurka ez doazen eginiko aldaketen proposamenak Artezkaritza Kontseiluak onartu beharko ditu.

**8. ORIENTAZIO- DEPARTAMENTUKO ARDURADUNAK****23. Atala. Bilerak Zuzendariarekin**

Urtero, ikasturtearen hasieran eta amaieran elkartuko dira Zuzendariarekin Departamentuaren egitaraua eta memoriaren berri emateko.

Halaber, hiru hilabete oro, garaialdi horretan eginiko lanaren berri emateko.

**9. ESKOLAZ KANPOKO KIROL- ZERBITZUA**

Eskolaz Kanpoko Kirol Zerbitzua, Gobernu eta Funtzionamendu Egituran definituta dagoenez, zerbitzu horren osagarri batzuk baino ez dira arautuko.

**24. Atala. Gurasoekiko informazioa eta lankidetzak**

Eskolaz Kanpoko Kirol Zerbitzua benetan eraginkorra izan dadin, besteak beste, gurasoen lankidetzak behar du.

Kirol desberdinetan parte hartuko duten ikasleen gurasoei ondorengo gai hauei buruz informazioa pasako zaie:

- ❖ Zein kiroletan parte hartuko duten, zein kategoriatan, kirol horren helburuak, zeintzuk izango diren entrenatzaileak, entrenamenduetako egun eta orduak, lehiaketaren egutegiak, aseguruak, eskola kiroleko jarrera araudia, etab.
- ❖ Halaber, ikasleen ebaluazio txostenak helaraziko dizkie familiei eta entrenatzaileekin bilduko da entrenamenduen antolaketa eta jarraipena egiteko.

Bestalde, kirol horietan aritzen diren ikasleen gurasoei dagozkien ondorengo eginkizunak:

- ❖ Ikasleak desplazatu, beraz, txandak antolatu: zein guraso, zein egunetan, ikasleren batek sendagilearen asistentzia beharko balu, ospitalera eraman, Aseguru-orriak eraman, etab.

**25. Atala. Kirol entrenatzaileak**

Ondorengo arau eta jarrerak jarraitu behar ditu:

1. Astero bi entrenamendu antolatzea eta partiduetara joatea.
2. Saiotara puntual joatea. Egunen batean joaterik izango ez balu, alde aurretik ikastolako kirol-koordinatzailea ohartaraztea, honek ikasleak ohartaraz diizan edo beste entrenadore bat aurki dezan.
3. Monitoreek jokabide hezitzaile eta komunikatiboa azaltzea.
4. Monitoreek jokabide fisikoen eredu izan behar dute. Haurren aurrean, entrenamendu nahiz partiduetan, ez dute erreko.
5. Ikasleak entrenamendu nahiz partiduetara, justifikatu gabe joaten ez direnean, era sortzailez kontuak hartzea.
6. Entrenamenduak nahiz partiduak euskaraz zuzentzea.
7. Partiduetan ikasleek ekipaia ongi eramatea eta errespetuz erabiltzea monitorea arduraduna da. Entrenatzaileak jokalariren kirol eta Aseguru-txartelak eraman behar ditu.
8. Gurasoen jarrera eta parte-hartzea kontrolatzea, arazoak izanez gero kirol arduraduna informatuz, honek arazoa konpon dezan.
9. Ikasleei aldatzeko arropa ekar dezaten aholkatuko zaie, entrenamendu-saioa burutu ondoren kiroldegiko aldageletan elkarrekin duxatzeko.
10. Eurria egiten duen egunetan entrenamendu saioak azkarrak eta dinamikoak izatea, geldirik egoteko jokoak eta ariketak saihestuz, ahal den neurrian.

## **EGITURA ERATZAILEAREN ELEMENTUEN ARAUTEGIA**

### **1. IRAKASLEAK**

#### **26. Atala. Irakasleen kontratazioa**

Irakasleak kontratatzerakoan, Ikastoletako Lan Hitzarmenak finkatzen duen arautegia jarraituko da, edota bere garaian ikastoletarako xedatzen dena.

Lan Hitzarmenak dioenaren arabera, guraso eta irakasleez osatutako Batzorde Parekidea antolatuko da kontratazioetarako, ondorengo eraketa hau izango duelarik:

- Artezkaritza Kontseiluko bi guraso.
- Artezkaritza Kontseiluko bi irakasle.
- Zuzendariak ere parte hartu ahal izango du Batzorde Parekidean, baina aholkulari gisa, hau da, ahotsa bai, baino boto eskubiderik gabe.

Batzorde Parekideak kontratazioko irizpideak eta puntuazioak ezarriko ditu, bereziki ondorengo hauek, besteak beste, kontuan hartuko dituelarik:

- Lanpostuari dagokion espezialitatea.
- Euskararen titulazioak eta gaitasuna.
- Curriculumak.
- Lanpostuarekiko agertzen duen gaitasuna. Azken hau, ahoz edota idatziz eskatu ahal izango da.

Batzorde Parekideak hautagai guztien informea egin ondoren, Artezkaritza Kontseiluari arkezuko dio, honek kontratazioa bidera dezan.

#### **27. Atala. Irakasleen atxikipen edo adskripzioak**

Irakasleen Etapa, ziklo, maila zein arloarekiko atxikipena, Zuzendariaren ardurara izango da. Alabaina, erabakia hartu aurretik Koordinatzaile Taldearen iritzia eta interesatuenak jasoko ditu.

Dena den eta beti ere, atxikipen hori ondoko bi ezaugarrietan oinarrituko da nagusiki:

- Espezialitatean.
- Lanpostuarekiko agertutako gaitasunean.

#### **28. Atala. Ordezkapenak**

Zuzendariari dagokio ordezkapenak antolatzea.

Ez da 2 egun baino gutxiagoko ordezkapenetarako irakaslerik kontratatuko Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako ez bada. Ordezkapen hauek ziklo nahiz etapako irakasleek lehenik, eta hauen ezinean beste Etapetakoek bete beharko dituzte, azken aukera hau, muturreko egoera batean soilik hartuko litzatekeelarik.



Kanpoko irakasleak kontratatzerakoan, hauek izango dira, batik bat, kontuan hartu beharreko baldintzak:

- Lanpostuarekiko espezialitatea.
- Lanpostuarekiko gaitasuna.
- Euskararen gaitasuna.
- Herrikoa izatea.
- Ikastolako ordezkapenetan aritua izatea.

### **29. Atala. Irakasle ez diren langileen kontratazioa**

Orain dauden irakasle ez diren langileak baino gehiago beharko balira, zerbitzu batzuk hala eskatzen dutelako, Batzorde Parekidea eratuko da, irakasleekin egiten den bezalaxe, hauek ere prozedura berdinez kontrata daitezten.

Era honetako lanpostuak betetzeko, kontratazioetan, ikastolako gurasoek lehentasuna izango dute.

### **30. Atala. Langileen Batzarra**

Langileen Batzarra, ikastolak kontratatutako irakasle eta ez-irakaslez osatuko da eta ondoko zereginak izango ditu:

1. Hauteskunde sindikaletan Langileen Komiteko partaideak aukeratzea.
2. Ikastolako Artezkaritza Kontseilurako lankideak proposatzea.
3. Lan gaiekiko erabakietan Lan Hitzarmenak, grebak eta abarretan– esku hartzea.
4. Lan-legediek eman diezazkioketen gainerakoak.

### **31. Atala. Batzarraren deialdiak eta erabakiak**

Gaien arabera Langileen Komiteak edota Zuzendariak egingo ditu bilera horien deialdiak.

Batzarrean hartzen diren erabakiak gehiengo arruntez hartuko dira eta boto idatzien jokoarez klaustroko bileretan bezala jokatu da (13. Atala).

### **32. Atala. Langileen grebak**

Langileen lan-grebak arautzeko, "Langileen Estatutua", hau osatzen duten Errege Dekretuak eta Hezkuntza Administrazioak xedatutakoa hartuko da kontuan.

Dena den, badaude ezustean eta bat-batean sortzen diren grebak eta gutxienezko arauketa behar dutenak. Beraz, azken hauek kudeatzeko, ondorengo hauek hartu behar dira kontuan, gutxienez:

1. Grebaz erabakitzeke, Langileen Komiteak egingo du bilera-deialdia bezperan. Erabakia hartzeko langileen erdia gehi bat beharko da gutxienez. Greba deialdiez erabakitzeke antolatzen diren klaustroetara asistentzia ez da derrigorrezkoa izango.

Erabakia gehiengo arruntez hartuko da eta grebaren aldekoa baldin bada, gurasoak idatziz informatuko dira. Halaber, Langileen Komiteak idatziz emango dio emaitzaren berri ikastolako Lehendakariari.

2. Bezperan erabakirik hartu ez bada, baina inguruko giroa nabarmen grebaren aldekoa bada, ikasleen asistentzia urria eta irakasleek nahi badute, elkartuko dira erabakiren bat hartzeko. Erabakia klaseak hasi baino lehen hartu beharko da. Grebaren aldekoa baldin bada, ikastolak lehenbailehen bideratuko ditu ikasleak etxera, ohiko moduan

Autobusak ibiliko ez balira, ikastolak irakasleen gutxieneko zerbitzuak antolatuko ditu ikasleak artatuak egon daitezzen eguerdira arte. Eguerdian, autobusa erabiltzen dituzten ikasleak, etxera joango dira autobusez ahal baldin badute. Bestela familiak arduratuko dira ikasleak etxeratzeaz.

3. Erabakia bezperan hartu ez bada, inguruko grebaren aldeko joera garbia ez bada eta ikasleen asistentzia handia izanik irakasleek greba egitea erabakitzen badute, eguerdira arte itxaron beharko dute eta aurreko puntuan aipatutako prozedurari jarraituz jokatu dute.
4. Grebarako deialdi guztietan, greba egin nahi ez duten irakasleen lanerako eskubidea errespetatuko da.

Lanean geratzen den tutoreak, bere tutoretzapean dauden ikasleei bakarrik emango dizkie klaseak. Lanean geratzen den tutorea ez den irakasleak, arlo edo arloak irakasten dituen ikasleei bakarrik emango dizkie klaseak eta ikasleak ordu horietan bakarrik joango dira klasera.

5. Greba egitea erabaki denean baina aldez aurretik irteeraren bat programatuta bazegoen, irteera atzeratzen saiatuko dira irakasleak. Oso zaila gertatuko balitz, aspalditik programatutako bidaiak delako, ikasturte amaierakoa delako, etab., Zuzendariarekin aztertuko da gaia, irtenbide egokiena emateko.

## 1.1. IRAKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

### 1.1.1. Irakasleen Eskubideak

Irakasleen nahiz beste langileen eskubide laboralak "Langileen Estatutuan", Agindu Orokorretan nola Ikastoletako Lan Hitzarmenetan arautzen direnez, hemen aipatzen direnak, irakasleak ikastolarekiko harremanetan ematen direnak baino ez dira aipatuko.

### 33. Atala. Ikastolako Antolaketan parte hartzeko eskubidea

#### 33.1. Gai orokorretan

- 33.1.1. Ikastolako bizitzan esku hartzeko eskubidea, horretarako gauzatuak izan diren organoen bidez.
- 33.1.2. Ikastolako gai eta arazoen informazioa jasotzekoa.
- 33.1.3. Irakasleen gaitasunezkoak diren ikastolako kargu guztietarako aukeratzailerak eta aukeratua izatekoa.
- 33.1.4. Klaustro-bileren deia egiteko eskubidea, horretarako xedatutakoaren arabera – ikus 12. Atala – egingo da.

**33.2. Hezkuntza Irakaskuntza mailan**

- 33.2.1. Hezkuntza funtzionamenduko talde koordinatuetan – Klaustro, Etapa, ziklo eta abarretan – lan egiteko, beren zereginak osatuz.
- 33.2.2. Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren lanketan eta bere oinarri nagusien finkapenean parte hartzekoa.
- 33.2.3. Landutako egitamu eta egitarauen arabera ikerketak garatzekoa, maila edota arloko lankideekin koordinatuz, eta egoki jotzen diren metodoak erabiliz. Bertako irakaskuntzaren batasuna gordetzea eta irakasleen autonomia errespetatzean datza, eskubide horren oreka.  

Dena den, irakasleen "katedra askatasunaren" eskubidea, hots, irakasleek metodologia, edukiak eta helburuak aukeratzeko duen eskubidea, berez mugatuta geratzen da Hezkuntza Komunitateak IHPn finkatu dituen helburuen lortzearekin, ikasleen hezkuntza delako eskubide nagusia. Horregatik, irakasleak parte hartzen du gero bere betebeharrak eratorriko diren Hezkuntza eta Curriculum Proiektuen eta Barne Araudiaren lanketa eta garapenean.
- 33.2.4. Etapa, maila edo arloko atxikimendurako bere nahiak, esperientzia eta gaitasunak Zuzendariari aurkeztekoa.

**34. Atala. Instalazioak eta Zerbitzuak erabiltzeko eskubidea**

- 34.1. Irakasleek ikastolako instalazio, altzari, baliabide materialak eta zerbitzuak erabili ahal izateko, ondorengo baldintzen arabera:
  - 34.1.1. Ikastolarekin zerikusia duten gai edo jarduerak garatzeko direnean.
  - 34.1.2. Beste gaietarako baina Zuzendariaren baimenez eta, beti ere, gastuak sortuz gero, irakasleak ordaindu beharko dituelarik.
  - 34.1.3. Irakasleek laguntza administratiboa izango dute beren hezkuntza-lanetan, beti ere, sail horretako langileen gainontzeko ardurak kontuan izanik, horretarako finkatutako ordutegia errespetatuz eta alde aurretik, behar den denboraz, lanak eskuratuz.
  - 34.1.4. Jangela zerbitzua erabili ahal izango du, janariaren kostua ordainduz eta zerbitzuaren funtzionamendua errespetatuz.
  - 34.1.5. Halaber, garraioa erabiltzeko eskubidea izango du, Lan Hitzarmenak xedatutakoaren arabera.

**35. Atala. Persona bezala bere duintasuna errespetatua izateko eskubidea**

Irakasleen lanbideak duen izaera publikoagatik, izan daitekeen lanbide kritikagarri-  
netariko bat da. Irakasleek huts egin dezakete beren lanetan besteek egin dezaketen bezalaxe berenetan; baina hemen, zenbaitetan, nabarmenagoak bilakatzen dira aipaturiko izaeragatik.

Irakasleek izan behar duten ardura gutxietsi gabe, Hezkuntza Komunitateko kideek errespetuz eta zintotasunez jokatu behar dute irakasleekin, hauek beraiekin jokatu behar duten bezalaxe.

### **1.1.2. Irakasleen Betebeharrak**

Ikastolako Funtzionamendu Pedagogikoan eta, zehazki, irakasle, irakasle-tutore, batzordekide eta Koordinatzaile Taldearen funtzioetan irakasleen zereginak garbi agertzen baziren ere, badaude funtzio hauen antolaketatik eratortzen diren beste betebeharrak batzuk, hala nola:

#### **36. Atala. Ikastetxeari oro har dagozkionak**

- 36.1. Ikastolak onartutako Ikastetxearen Hezkuntza eta Curriculum Proiektuak betetzea.
- 36.2. Ikastetxearen Urteko Kudeaketa Planean esku hartzea, berari dagozkion maila eta arlo edo arloetako programak gauzatzuz, EKKS 01prozesuan definitutako prozedurak jarraituz.
- 36.3. Ikastolak bere funtzionamenduaren onerako hartu eta hartuko dituen erabakiak eta arauak betetzea.

#### **37. Atala. Beste irakasleekiko**

- 37.1. Irakasleek klaustroan, beren gaitasunezko gaietan eta legezko arauen barruan erabakitakoa onartzea. Aldi berean, azpitaldeetan – Etapa, ziklo eta mailan – erabakitakoa onartzea.
- 37.2. Beste irakasleek ikasle bati buruz emandako informazioa, irakaskuntza-mailan erabiltzea, zuhurtasun osoz jokatuz.

#### **38. Atala. Ikasleekiko**

Irakasleak ikasleekiko duen betebeharrak garrantzitsuena irakaskuntza-hezkuntzako jarduerara da eta horren antolaketak irakaslea zeregin hauek betetzera darama:

- 38.1. Ikastolara eta gelara garaiz iristea.
- 38.2. Bere ardurapean dauden ikasleez arduratzea eskola-orduetan nahiz jarduerara osagarrietan. Halaber, geletako aldaketak, ikastolako sarrera - eta irteera-orduak zaintzea, ikasleek behar duten bezala joka dezaten.
- 38.3. Klaseak prestatu eta ahalik eta ongien ematea, etorri ezin duenean, ordezkariari lana prestatuta utziz.
- 38.4. Ikasleek ikastola, instalazioak eta baliabide material guztiak behar bezala erabili ditzaten zaintzea eta hezteak.
- 38.5. Ikasleen geletarako asistentzia eta puntualtasuna zaintzea; hau horrela gertatzen ez denean gurasoak informatzea.
- 38.6. Puskatutako materialak ordainaraztea, familia informatuz.
- 38.7. Gelatik ez ateratzea behar-beharrezkoa ez bada. Halaber, telefonoko deiak atsedenaldietan egin edo artatzea, presazko edo larrialdiko egoerak ez badira behintzat.

- 38.8. Ikasleak ikastolatik ateratzen ez uztea, egoera larria edota arrazoitutako baimenez ez bada.
- 38.9. Ikasleren bat zigortzeagatik gelan ohiko orduak baino gehiago pasatu eta garraioa erabili beharko balu, familia ohartaraztea garraioaz ardura dadin.
- 38.10. Ikasleen duintasuna, ideia eta fedea errespetatzea, elkarbizitza eta tolerantzia giroa sustatuz.

### **39. Atala. Gurasoekiko**

Ikaslearen hezkuntza-prozesua laguntzea da guraso eta irakasleen arteko harremanen helburu nagusia, eta beti egon beharko dute prest biek beren lankidetzak eskaintzeko.

- 39.1. Gurasoekin elkar laguntza-bideak sortzen saiatzea, begirunezko harremanak mantentzea eta Etapak, zikloak nahiz ikastolak beren seme-alabei buruz erabakitakoaz informatzea eta arrazoitzea.
- 39.2. Bien artean arazo larriren bat gertatuko balitz, ikaslearen egoera bereziren batengatik, Zuzendaria informatzea.
- 39.3. Gurasoekin harremanetarako finkatutako orduak errespetatzea. Horretarako ez dira klase-orduak erabiliko.

## **1.2. IRAKASLEEN ONESPENAK, HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK**

### **40. Atala. Irakasleen Onespenak**

Ikastolak, "25 urte" edo gehiago lanean aritutako irakasleei onespenez berezia agertuko die, Artezkaritza Kontseiluak erabakitzen duen leku eta eran.

### **41. Atala. Irakasleen Hutsegiteak**

Gai hauekiko, Ikastolak indarrean dirauten xedapenak onartuko ditu, hots, 8/1980 "Langileen Estatutua" eta Ikastolako Hitzarmenean jaso litezkeenak.

Hala ere, Ikastolak beste zenbait neurri har dezake arautu gabeko hutsegiteak izan eta aurreko legezko xedapenak aldatzen ez dituen bitartean.

Garrantziaren arabera, hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

#### **Hutsegite arinak**

1. Arrazoirik gabe, lanera hiru aldiz berandu iristea, 30 egunen barruan.
2. Arrazoi edo baimenik gabe, lanera behin ez etortzea, 30 egunen barruan.
3. Arrazoirik gabe, baja-egoeraren berri bere garaian eman ez edo beranduegi ematea.
4. Ohizko eginkizunetan utzikieran erortzea ikasleen asistentzia behar den bezala ez zaintzea, agindutako zenbait lan, ikasleen portaera oker arinak eta abar ez zuzentzea -, baldin eta utzikeria horrek ondorio larriak ekartzen ez dituen.

5. Norbere buruarekiko txukuntasun eta garbitasun eza nabarmenki agertzea.
6. Utzikeriaz edo tratu desegokiaren ondorioz, instalazioetan nola baliabide materialetan kalte arinak sortzea.

**Hutsegite larriak**

1. Arrazoirik gabe, lanera hiru aldiz baino gehiagotan eta hamar aldiz baino gutxiagotan berandu iristea, 30 egunen barruan.
2. Arrazoi edo baimenik gabe, behin baino gehiagotan baino hiru aldiz baino gutxiagotan lanera ez etortzea edo lanetik ateratzea, 30 egunen barruan.
3. Ikastolako diziplina akademikoaren eta barruko ordenaren aurkako ekintzak hutsegite larritzat hartuko dira zerbitzuen funtzionamendu onaren kontrako eragina badute.
4. Gizarte Segurantzaren ondorioak izan ditzaketen familian gertatutako aldaketan berri bere garaian ez ematea.
5. Gaixorik azaltzea, hala ez denean.
6. Lan eginkizunetan utzikerian eta arduragabekeria erortzea, beste pertsonarengan nola ikastolaren funtzionamenduan eragin kaltegarriak sortuz.
7. Isilpean eta diskrezio osoz gordetzeko diren aztertutako gai eta idatzizko dokumentuen erabilpen okerraren ondorioz, pertsonen nahiz Ikastolari kalteak sortzea.
8. Ikastolako instalazio nola baliabide pedagogikoetan kalte larriak sortzea, behin eta berriz emandako erabilpen okerraren ondorioz.
9. Hiruhilabeteko baten barruan, hutsegite arinetan berrerortzea.

**Hutsegite oso larriak**

1. Arrazoirik gabe, lanera hamar aldiz baino gehiagotan berandu iristea, 30 egunen barruan.
2. Arrazoi edo baimenik gabe, lanera hiru aldiz baino gehiagotan ez etortzea, 30 egunen barruan.
3. Bere ardurapean jarritako zeregin eta gestioetan iruzurra, desleialtasuna eta konfiantza gehiegikeria agertzea.
4. Bere lanetan, behin eta berriro, lan-errendimendu eza nabarmen agertzea.
5. Ohiz hordi azaltzea.

6. Zuzendariarekiko errespetu eza nabarmena agertzea eta Ikastolak bere funtzionamendurako dauzkan arauak nabarmenki ez betetzea.
7. Hezkuntza Komunitateko edozein kide, hitzez nahiz ekintzez, gaizki tratatzea bere duintasuna larriki kaltetuz.
8. Gezurretan aritu, egia espresuki ezkutatu edota adierazpen maltzurak egitea, ikastolaren interes eta izena kaltetan jarritz.
9. Esanekoak ez bete eta diziplina eza nabarmena agertzea.
10. Hezkuntzarako datu, faktura eta dokumentu ofizialak aldatzea eta faltsifikatzea.
11. Sei hilabeteko epean, hutsegite larrian berrerortzea.

#### **42. Atala. Zigorrak**

Zigorak ezartzerakoan Legeek xedatzen dutena hartu beharko da kontutan: LE (58 eta 60 atalak).

##### 67. Atala

"Enpresei dagokie zigorak ezartzeko ahalmena, Lan Kontratuaren Legean eta Agindu horretan erabakitakoaren arabera. Edozein zigor dela eta, idatziz adieraziko zaio interesatuari eta horrek jaso duela adierazi edo komunikazioaren jakitun dela izenpetu behar du."

##### 68. Atala

Hutsegitearen izate eta larritasunaren arabera, hauek dira ezar daitezkeen zigor handienak:

1. Hutsegite arinak direnean: ahozko oharra, idatzizko oharra, bi egunetarako lan eta soldata geraldia.  
Legearen 58. atalaren arabera, ezin da opor edo atsedeen eskubideen kutxitzea ezarri, ezta multarik ere.
2. Hutsegite larriak direnean: idatzizko oharra, ohar hori bere espedientean agertuz eta hiru- hamabost egun bitarteko lan eta soldata geraldia.
3. Hutsegite oso larriak direnean: hamasei eta hirurogei egun arteko lan eta soldata geraldia eta bidaltzea.

##### 69. Atala

"Ikastetxeek zigorra ezartzeko duten ahalmenak Zuzendaritzak gertakizuna ezagutzen zuen edo ezagutu zezakeenetik hamabost egunetara betearaziko du, hutsegite arinak direnean; hogeita hamar egunetara, hutsegite larriak direnean eta; hirurogei egunetara, hutsegite oso larriak direnean."

## 2. IKASLEAK

### 70. Atala. Xedapen Orokorrak

- 70.1. Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte. Beren jardura adinari eta egon dauden irakaskuntzen ziklo eta mailari egokituko zaie.
- 70.2. Eskubide eta betebeharrak horien jarduna, Ikastolak finkatuta dauzkan helburuetan burutuko dira, Uztailaren 3ko 8/1985 eta Urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Legeak nahiz **Otsailaren 19ko 1/1993 EEPL** kontuan hartu beharko direlarik.
- 70.3. Hezkuntza Komunitateko partaide guztien eskubideen onarpenez eta begirunez erabiliko dituzte ikasleek beren eskubideak.
- 70.4. Hezkuntza Komunitateko kide guztiek aitortu eta errespetatu beharko dituzte hemen jasotako ikasleen eskubideak.

### 2.1. IKASLEEN ESKUBIDEAK

#### **Atal honetako zenbaketak erreferentzia egiten die Ikasleen Eskubideen eta Betebeharren Dekretuaren atalei eta artikuluei**

#### **44. atala. Hezkuntza integrala eta berehalako arreta jasotzeko eskubidea (6. eta 7.artikulua)**

- 44.1. Beren nortasuna guztiz garatzeko eskubidea
- 44.2. Oinarriko gaitasunak eta edukiez gain, maila pertsonalean, afektiboan ... garatzea. Baita ere, Euskal Herriko kide gisa beren kultura nortasuna aurkitzea eta bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna lortzeko eskubidea.
- 44.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubidea.
- 44.4. Arreta berehala jasotzeko eskubidea.
- 44.5. Arreta zuzena eskaintzea eta dagokionari honen berri emateko eskubidea
- 44.6. Tratu txarrak edo arriskuzko egoeren aurrean, dagokion organoari informazioa emateko eskubidea.
- 44.7. Eskolatu gabe edo absentismo maila handiko kasuetan dagokion erakundeari jakinarazteko eskubidea.
- 44.8. Emakume eta haurren aurkako indarkeriaren aurrean, ikastolako Gobernu-organoei jakinarazteko eskubidea.



**45. atala: Ikasle adingabeak ikastetxearengatik babestuak izateko duten eskubidea (8. artikulua)**

- 45.1. Ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea.
- 45.2. Aurreko puntuak aipatutakoaren kontra eginez gero, neurriak hartzeko eskubidea.
- 45.3. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastolako bizimoduarekin lotutako jakinarazpenak emango zaizkie.
- 45.4. Datu pribatu guztiak diskrezioz erabiltzeko eskubidea.
- 45.5. Ikasleen inguruko informazioa, irudiak ... komunikabideetan erabiltzea eragozteko eskubidea.

**46. atala: Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea (9. artikulua)**

- 46.1. Ebaluatzeko irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutzeko eskubidea
- 46.2. Ebaluazioaren ondorengo informazioa eskaintzeko eskubidea
- 46.3. Kalifikazioan eragina izango duten lanak, ariketak eta frogak ikusteko eskubidea
- 46.4. Barne-erreklamazioa egiteko eskubidea

**47. atala: Eskola eta lanbide orientaziorako eskubidea (10. artikulua)**

- 47.1. Hezkuntza eta Lanbide Orientazioaren inguruko informazioa jasotzeko eskubidea.

**48. atala: Osofasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea (11. artikulua)**

- 48.1. Tratu iraingarrietatik, eraso fisiko eta moraletatik babesa jasotzeko eskubidea.
- 48.2. Jokabideak zuzentzeko garaian, arbitrariotasun gabeko neurrien bidez egitea.
- 48.3. Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun eta higiene-baldintza egokietan egiteko eskubidea.
- 48.4. Ezarritako prozedurei jarraituz, berdinen arteko tratu txarrak ezabatzen laguntzea.
- 48.5. Eskola eremuan tabakoa- alkohola edota beste edozein drogaren kontsumoa galaraztea.

**49. artikulua: Kontzientzia askatasunerako eskubidea (12. artikulua)**

- 49.1. Kontzientzia-askatasuna eta erlijio-sinesmenak errespetatzeko eskubidea.
- 49.2. Aurreko gaiaren inguruan, matrikulatu aurretik Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren berri izateko eskubidea.

**49.3. ERLIJOA ... ????????**

**Comentado [m1]:** Nire ustez eta ikastola bere Ideariumean laiotzat duenez bere burua, puntu hau ezabatuko nuke (13/10/30)

**50. Ikastolan biltzeko eskubidea (13. artikulua)**

## 50.1 Bileretako eskubidea

DBH<sub>I</sub> ETA DBH<sub>II</sub> zikloko ikasleak eskola edo eskolaz kanpoko jardunetarako bildu ahal izango dira, halaber hezkuntza edo heziketa helburu bat eman dakiekeen beste batzuetarako ere.

DBH<sub>II</sub> zikloko ikasleek eskola orduetan biltzeko eskubidea dute ondorengo gaiak aurkezteko:

- Eskola jardunarekin zerikusia duen edozer gai, aztertu, komentatu, baloratu eta horren gainean iritzia eman eta bateratzeko.
- Ikastolaren zuzendaritza batzordera beraien iritzia eta proposamenak eramateko eta horietan aztertutakoaren eta erabakitakoaren berri emateko.

## 50.2. Klasera ez joateko eskubidea

- Klasera ez joateko eskubidea, DBH.II zikloko ikasleek bakarrik dute.
- HSAOko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren arabera, Barne Araudi honetan agertzen diren arauak bete beharko dira:

50.2.1. DBH3 eta DBH4.mailako taldeetako ordezkariak, ikastetxean matrikulatutako ikasleen % 5ek edota legez eraturako ikasleen Elkarreketako ordezkariak eskatuta, zuzendariarengana edo zikloko koordinatzailearengana joko dute, ordezkarien batzordea biltzeko asmoa azalduz.

50.2.2. Ikasleen Batzordea elkartu eta gaia aztertu ondoren, geletan aztertu edo erabakiko du.

50.2.3. Geletan eztabaidatzea erabakiz gero, bilerak jolas garaian egingo dituzte, tutoretzako orduetan edo eguneko azken ordu lektiboan.

50.2.4. Ondoren, taldeko ordezkari bakoitzak bere gelan eztabaidatuko du Ordezkarien Batzordearen proposamena.

50.2.5. Bozketaren egiterakoan, tutoreak edo irakasleren batek gelan egon beharko du beti.

50.2.6. Bozketaren ezkutukoa izango da eta botoak kaxa batean sartuko dira.

- 50.2.7. Ondoren, taldeko ordezkariak gela bakoitzean erabakitakoaren berri bildu, aztertu eta erabakitakoaren akta jasoko dute. Aktetan ondokoa jaso beharko dute gutxienez:
1. Bilera non eta zein ordutan egin den
  2. Baiezko, ezezko eta absenti kopurua
  3. Klasera ez etortzeko erabakia hartu den ala ez.
- 50.2.8. Klasera ez etortzearen erabakiak bertaratu diren gehiengo absolutuaren botoak, hau da, erdia gehi bat, beharko ditu.
- 50.2.9. Botazioan, klasera etortzea erabakitzen bada, bozketan parte hartzen duten ikasleek ezingo dute bere kabuz etenik egin. Kasu hauetan, arrazoitu gabeko hutsegite bezala kontatuko da.
- 50.2.10. Klasera ez etortzea erabakiz gero, ordezkarien arduradunak akta Zuzendariari edo Etapako Koordinatzaileari emango dio 24 ordu lehenago eta 12 ordu lehenago presazko egoeretan.
- 50.2.11. Zuzendariak prozedura horren guztiaren berri emango dio Artezkari Kontseiluari, Ikasleen Batzordea izanik klasera ez etortzearen gainean gurasoak informatu beharko dituena.
- 50.2.12. Nola nahi ere, klasera etorri nahi duten ikasleei, dagozkien irakasleek behar bezala artatuta, arloetako diren lanak gelan egiteko eskubidea bermatuko die ikastolak.
- 50.2.13. Irakasleek klasera ez etortzeko eskubideak ez darama berarekin irakasleek programako zati galdua errepikatu beharra.
- 50.2.14. Ikasleen ordezkariak, beraien arteko komunikazioak eta ekintzak burutu ahal izateko, materiala edukiko dute eskura (errotulagailuak, papera, txintxetak,...) horretarako izendatuko den tokian.
- 50.3. Prozedura honek eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direnean, klasera ez joatea ez da jokabide desegoki bat bezala hartuko, honenbestez ez da justifikatu beharrik izango. Nolanahi ere, gurasoei jokabide horren berri emango zaie.

**51. atala: Adierazpen askatasunerako eskubidea (14. artikulua)**

- 51.1. Kartelak eta iragarkiak ikastolako partaideek bakarrik jarri ahal izango dituzte.
- 51.2. Informazio kartelak: Kartel hauek geletan eta pasilloan jarrita dauden kortxoetan ipiniko dira.
- 51.3. Pertsona, talde eta erakundeak erabat errespetatuko dira.
- 51.4. Kartelak, iragarkiak eta iritziak sinatuta joan behar dute. Ez dira anonimoak onartuko.

- 51.5. Eduki politiko edo/eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin lotura zuzenik ez duten kartelak, horretarako jarritako kortxoan ipiniko dira eta inoiz ez gela barruan.
- 51.6. Beste kartelak errespetatuko dira
- 51.7. Toki arazoa egongo balitz, kartelaren iraunaldia finkatuko da.
- 51.8. Interesatuak kartelak jartzeaz eta kentzeaz arduratuko dira.
- 51.9. Arautegi hau jarraituko ez lukeen kartelen bat agertuz gero, hau kentzea zuzendariari edo DBHko koordinatzaileari legokieke.

**52. atala. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea (15. artikulua)**

- 52.1. Elkarateak sortzeko eskubidea
- 52.2. Elkarteen jarduerarako lokalak uzteko eskubidea

**53. atala. Parte hartzeko eskubidea (16. artikulua)**

- 53.1. Ikastolako bizimoduan parte hartzeko eskubidea
- 53.2. Ikasleen partaidetzarako organo espezifikoko aukera
- 53.3. Ordezkariek laguntza eta aholkuak jasotzeko eskubidea.
- 53.4. Ordezkarien hautaketa zuzeneko nahiz isilpeko bozketaren bidez egiteko eskubidea.

**54. atala. Informazioa erabiltzeko eskubidea (17. artikulua)**

- 54.1. Adina eta heldutasunaren arabera informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko eskubidea
- 54.2. Ikasleen eskubideen inguruko informazioa jasotzeko eskubidea
- 54.3. Ikastolako gaien inguruko informazioa jasotzeko eskubidea, oro har, Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien ingurukoa

**55. atala. Aukera berdintasunerako eskubidea (18. artikulua)**

- 55.1. Gabezi desberdinak konpentsatzeko laguntzak jasotzeko eskubidea
- 55.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurrez aipaturiko laguntzak bermatzeko eskubidea
- 55.3. Hezkuntza Premia Bereziko ikasleek beharren arabera arreta jasotzeko eskubidea.

55.4. Ikasleen premiei erantzuteko ikastetxeak zerbitzu publikoekin (udalekoekin ...) harremanetan jartzeko eskubidea.

**56. atala. Gizarte babeserako eskubidea (19.artikulua)**

56.1. Ezbeharretan Gizarte babesa jasotzeko eskubidea

56.2.Familia-ezbeharretan, istripua edo gaixotasun luzeetan ikasketekin aurrera jarraitzeko eskubidea

56.3. Eskola errendimendua ziurtatzeko laguntza jasotzeko eskubidea

56.4.Eskola-jazarpena eta emakumeen aurkako eraso kasuetan babes-neurrietarako eskubidea

**57. atala. Ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea. (20. artikulua)**

57.1. Ikasleek beren eskubideak ezagutzeko eskubidea

57.2. Ditutzen eskubideez baliatzeko aukera bermatzea

57.3. ikasleen arteko harremanetan diskriminaziorik gerta ez dadin zaintzea

**58. atala. Ikasleen lanerako baldintzak**

Ikasleek beren eskola-jardunaldia segurtasun eta garbitasun egokietan garatzeko eskubidea izango dute. Horretarako:

58.1. Hezkuntza Administrazioak eska ditzakeen baldintzez gainera, ikastolak behar diren neurriak aztertu eta garatuko ditu ikasleak segurtasun eta osasun-garbitasun giroan bizi daitezen.

58.2. Ikasleek beteko duten eskola ordutegia bere adinari egokitua izango da eta txikienean, ikasturtearen hasieran, ordutegi berezia izango dute.

**2.2. IKASLEEN BETEBEHARRAK****59. Atala. Ikasteko betebeharra (21. artikulua)**

59.1. Bere gaitasunak garatzeko ahalegina egin beharra, lan intelektualerako giro egokia sortuz eta portaera egokiaz lagunduz.

59.2. Azterketa eta ariketetan zintotasunez jokatu beharra.

**60. Atala. Prestakuntza jardueretan parte hartzeko betebeharra (22. artikulua)**

60.1.Agintzen zaien lan pertsonala egin eta lan-taldeetan laguntza eman beharra

**61. atala. Bertaratzeko betebeharra (23. artikulua)**

- 61.1.Ordutegiak errespetatu eta absentiak justifikatu beharra.
- 61.2.Absentiak gurasoek justifikatu beharra.

**62. atala. Elkarbizitza errazteko betebeharra (24. artikulua)**

- 62.1.Elkarbizitza hobetu eta ikasteko giro aproposa lortzen inplikatu beharra.
- 62.2.Elkarbizitza-arauak ezagutu, guztien eskubideak errespetatu eta gatazkak konpontzeko metodo baketsuak erabiltzea.
- 62.3. Neurri zuzentzaileak aplikatzen lagundu beharra (lekuko bezala deklaraturaz ...)

**63. atala. Norberaren kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra (25. artikulua)**

- 63.1.Hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia askatasuna ... errespetatu beharra.
- 63.2.Ikaskideen erabakiak errespetatu beharra modu kolektiboan parte hartu nahi ez dutenean.
- 63.3.Irainak, mehatxuak eta difamazioak alde batera utzi beharra.
- 63.4.Baimenik gabe grabazio-baliabiderik ez erabiltzea.

**64. atala. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra (26. artikulua)**

- 64.1.Ikastolako antolamendu eta elkarbizitzarako arauak ezagutu eta errespetatu beharra.
- 64.2.Ikastolako gobernu-organoen erabakiak bete beharra, garbiketa, jantziak, zenbait tresnen erabileraren ingurukoa ...
- 64.3.Hezitzaile zein ikastolako irakasle ez direnen jarraibideak bete beharra.

**65. atala. Instalazioak errespetatzeko betebeharra (27. artikulua)**

- 65.1.Ikastolako ekipamendua eta materiala baimenik gabe ez erabiltzea eta zaindu beharra.
- 65.2.Ikastolaz kanpoko inor baimenik gabe sartzen ez uztea.
- 65.3.Hezkuntza-komunitateko beste kideen gauzak errespetatu beharra.

### **2.3.1. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETOAN OINARRITUTAKO JARRERA DESEGOKIAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA PROZEDURAK**

#### **54. Añala. Oinarri Orokorrak**

Diziplina Araubidean hartzen diren neurriek ikaslearen heziera eta jokaera hobegotzea izango dute helburu. Halaber, adinari eta egoerari egokituko dira eta arazoari buruzko erabakia hartzen dutenek, behar den diskrezioa mantenduko dute prozesua ematen den bitartean.

- 54.1. Ez dira ikaslearen osotasun fisiko edo duintasun pertsonalaren aurkako neurriak ezarriko.
- 54.2. Hutsegite eta hartutako neurrien arteko oreka mantenduko da.
- 54.3. Ez ohiko prozedura bat irekitzerakoan, neurriak ezartzen dituzten pertsonak edo taldeak, kontuan hartuko dituzte ikaslearen hezkuntza garaia nola bere egoera pertsonala, familiarra eta soziala.
- 54.4. Eman diren neurriak benetan eta emandako moduan betetzeko ardura ikastolako Artezkaritza Kontseiluarena da.
- 54.5. Hezkuntza Komunitateko kideek oro har eta irakasleek bereziki, arreta berezia izango dute ikasleen guraso edota legezko ordezkariekin zuzeneko harremanak izanik eta elkar lagunduz, ahal den neurrian, ikasleen hutsegiteei aurre hartzen.
- 54.6. Desegokiak, aurkakoak eta elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu. (28.artikulua)

#### **54.7. Ikasleen adinari egokitzea (29.artikulua)**

- 54.7.1. Barne Araudi honetan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako kasu guztietan.
- 54.7.2. Lehen Hezkuntzan Araudi honetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonak edota objektuek balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.
- 54.7.3. Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko elkarbizitzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta araudi honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritik.

**55. Atala. Jokabide mota ezberdinak**

**55.1. JOKABIDE DESEGOKIAK (ikus dekretuko 30. artikulua)**

Dekretuan azaltzen diren jokabide desegokiez gain, honako hauek txertatuko dira talde honetan:

- m. Baimendu gabe, eskola orduetan ikastola eremuetatik kanpo ateratzea.
- n. Gelan adostutako arauak ez errespetatzea, beti ere araudi honek jokabide desegokitza hartzen duenean.

**55.2. IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (ikus dekretuko 31. artikulua)**

Dekretuan azaltzen diren elkarbizitzaren aurkako jokabideez gain, honako hauek txertatuko dira talde honetan:

- m. Gelan adostutako arauak ez errespetatzea, beti ere araudi honek jokabide desegokitza hartzen duenean.

**55.3. IKASTETXEKO ELKARBIZITZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (ikus dekretuko 32. artikulua)**

**55.4. IKASTETXETIK KANPO EGINDAKO JOKABIDEENGATIK ERANTZUKIZUNA (ikus dekretuko 33. artikulua)**

**56. Atala. HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK:**

*Desegokiak, aurkakoak edota elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideen beste ondorio batzuk*

**Jokabide desberdinak neurri desberdinen bitartez zuzenduko dira:**

- 56.1. Jokabide desegokien zuzenketa (ikus 34. artikulua)
- 56.2. Elkarbizitzaren aurkakoak diren jokabideen zuzenketa (ikus 35. artikulua)
- 56.3. Elkarbizitzan kalte larriak eragiten dituztenen zuzenketa (ikus 36. artikulua)
- 56.4. Ikastetxez aldatzeko proposamena (ikus 37. artikulua)
- 56.5. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna (ikus 38. artikulua)
  - 56.5.1. Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela eta, etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.
  - 56.5.2. Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagozkion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.



**56.6. Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak (ikus 39. artikulua)**

Gizarte -eta heritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoei kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz elkarbizitzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

**56.7. Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna (ikus 40. artikulua)**

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larri edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara- arauen aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte.

Horren orde, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

**56.8. Hartutako neurriak proportzionaltasunez aplikatzeko irizpideak (ikus 41. artikulua)**

*Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak (41. Artikulua)*

1. **Deskribatutako jokabideak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:**
  - a) Deskribatutako jokabideak zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
  - b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota aipatutako jokabideak ondorioz jasan dezaketena.
  - c) Ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen egoera pertsonalak eta sozialak
  - d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.
2. **Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:**
  - a) Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
  - b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
  - c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higieziari kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
  - d) Jendaurrean barkamena eskatzea.

- e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

**3. Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:**

- a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- b) Kaltea nahita egina izatea.
- c) Kaltea apropos egitea edo aldez aurretik prestatu ondoren egitea.
- d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
- e) Eskola-erako ordezkari-targua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

**57. atala.- JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK**

**57.1. Xedapen orokorrak (ikus 42. artikulua)**

1. Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute elkarbizitza-arazoak konpontzeko, Dekretu honetako IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.
2. Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezten: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.
3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkari-targua Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek elkarbizitzaren aurkakoak izan behar zuten edo elkarbizitzaren kalte larria eragiten diotenak).
4. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

**57.2. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.(ikus 43. Artikulua)**

1. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

**2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:**

- a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.
- b) 37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.
- c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

**57.3. Prozedura bertan behera uzteko baldintzak.**

Prozedura bertan behera utz daiteke:

1. Adiskidetzeari gertatu delako (ikus 44. artikulua)
2. Kaltea konpondu delako (ikus 45. artikulua)
3. Jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik (ikus 46. artikulua)

**57.4. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barka daitezke 47. artikuluan dionaren arabera.**

**57.5. Elkarbizitzarako konpromiso hezigarriak (ikus 48. artikulua)**

**57.6. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak**

- 57.6.1. Jokabide desegokien zuzenketa (ikus 57. artikulua)
- 57.6.2. Elkarbizitzaren kontrakoak eta elkarbizitzari kalte larriak eragiten dieten jokabideen zuzenketaren ohiko prozedura (ikus 58. artikulutik 67ra)
- 57.6.3. Ohiz kanpoko prozedura (ikus 68. artikulutik 80ra)

**58. atala.- Neurri Zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna (50. artikulua)**

**59. atala.- Neurri Zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak (51. artikulua)**

- 59.1. Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua (52. artikulua)
- 59.2. Neurri Zuzentzaileak aplikatzeko unea (53. artikulua)
- 59.3. Ikastola barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea (54- 55 eta 56. Artikuluak)

### **3. GURASOAK**

#### **3.1. GURASOEN ESKUBIDEAK**

##### **60. Atala. Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteko bazkide izateko eskubidea**

Ikastolako ikasleen gurasoak direnez, Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteko bazkideak dira eta, ondorioz, Gobernu Egituran eta ikastolako bizitzan, dagozkien gaietan parte hartzeko eskubidea dute.

##### **61. Atala. Gurasoen eskubideak Hezkuntzan**

Guraso eta legezko tutoreek beren seme-alaben hezkuntzaz dituzten eskubide nagusienak ikastolan, ondorengo bi alorretan zehazten dira:

###### **Ikastolako Hezkuntza Funtzionamenduan**

1. Ikastolak onartzen duen Hezkuntza Proiektuan parte hartzea edota honen berri jasotzea, beren seme-alabak proiektuaren arabera heziak izanik. Onartzen den proiektuak Hezkuntza Legeek xedatzen duten gutxiengo helburu eta orientabideak hartuko ditu kontuan, beste ikastetxera joatean edota ondorengo ikasketen aurrean, ikasleen ikasketen jarraipena ziurtatua izan dadin.
2. Seme-alaben heziketaz informazioa eskuratu ahal izatea, horretarako ikastolak antolatzen dituen bilera, elkarrizketa eta harremanen bidez. Gurasoei ematen zaien informazio horrek, ezaugarri hauek jasoko ditu gutxienez: ikaslearen jarrerak, jokabideak, ohiturak, besteekiko harremanak eta errendimendu akademikoa.
3. Halaber, beharrezkoak ikus ditzaketen adierazpen edo informazio osagarriak eskatzea eta kexak, behar den begirunez, agertzea.
4. Seme-alabekiko ikasketen egoera berezietan konpontzeko hartzen diren neurrien berri ezagutu eta erabakian iritzia ematea. Halaber, tutoreak eta irakasle-taldeak beren seme-alabak ikasturtea errepikatu beharra agertu eta legeak ukatzen ez dien bitartean, erabakian parte hartzea.

###### **Irakasleei dagokienez**

1. Irakasle bakoitzak beren seme-alabei ematen dien arloaren programazioa ezagutzeko eskubidea dute, halaber, erabiltzen diren ebaluazio-irizpideak eta lortutako emaitzak.
2. Irakasleren batek gurasoen edo beren seme-alabekiko eskubideen aurka jokatu balu, irakaslearekin egoera argitzekoa eta Zuzendariari kexa agertzekoa.

### **3.2. GURASOEN BETEBEHARRAK**

#### **62. Atala. Beren seme-alaben heziketan elkarkidetza eskaini**

Gurasoek gai honetan ondorengo betebeharrak dituzte:

- 62.1. Beren seme-alaben heziketa egoerak hala eskatzen duenean, inguruabar personalak, familiarrak edo sozialen informazioa ematea, bai ikastolako arduradun baten eskakizunez nola beraien ekimenez.
- 62.2. Gurasoak seme-alaben heziketaren eragile nagusiak direnez, arazoak hezkuntza arduradunekin tratatuko dituzte zuzenean eta ez seme-alaben bitartekaritza erabiliz.
- 62.3. Ikastolak bere seme-alaben heziketaz, tutorearekin edo beste arduradun batekin, antolatzen dituen bilera eta elkarrizketa aldietara etortzea, are gehiago, dei bereziren bat jasotzen badute.
- 62.4. Bilera eta elkarrizketetarako finkatutako egun eta orduak errespetatzea, agertu ezin denean, aldez aurretik tutorea edo irakaslea ohartuz eta eskola-orduetan geletara ez sartzea, larria ez bada, bertako lana oztopatuz.

#### **63. Atala. Ikastolako funtzionamenduari lagundu**

Gurasoek ikastolako funtzionamenduari laguntza eskaini diezaiokete, batez ere gai hauetan:

- 63.1. Seme-alaben higiena zainduz.
- 63.2. Seme-alabak puntual bidaliz.
- 63.3. Seme-alabak gaixorik daudenean ikastolara ez bidaliz.
- 63.4. Beren seme-alabek ikastolara etorri ezin dutenean, tutoreei ezin horren berri emanez.
- 63.5. Eskolaz kanpoko eta jarduera osagarrietan behar dutenaz hornituz eta behar izan duten hori nolaz erabili duten zainduz.
- 63.6. Ikastolako instalazioak, altzariak, materiala eta autobusak begirunez eta zuzen erabili behar dutela agertzen, egindako puskatzeen erantzule direla adieraziz.
- 63.7. Hezkuntza Komunitateko kide guztiak merezi dute beren errespetua eta denok hutsegiteak egin ditzakegunez, hutsegite horiek beren testuingurutik ez ateratzen, ezta handitzen ere.

#### **64. Atala. Gurasoen ikastolarekiko harremanak**

Ikasleei dagokion edozein motatako informazioa beren gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie bakarrik, edota hauek idatziz ordezkatzeko duen beste norbaiti. Beste kasu guztietan, ikastolak ukatu egingo dio informazioa datorren beste edonori.

Dena den, guraso edota legezko arduradunek arau hauek hartuko dituzte kontuan:

- 64.1. Ikasturte hasieran gurasoei bidalitako tutoreen ordutegian edota gero tutoreekin eta irakasleekin hitz egiteko finkatutako garaiak errespetatzea, 62.3. eta 62.4. ataleko puntuetan agertutakoaren arabera.
- 64.2. Gurasoek ez dute irakasleekin hitz egingo, hauek ikasleekin lanean ari diren bitartean, urgentziaz edo presazko gairen baten berri emateko ez bada. Beste guztiak atsedendaldietan eta irakasleen eskola-orduz kanpoko garaietan egingo dira.
- 64.3. Ikastolak ikasturte bakoitzaren amaieran guraso guztiei bidaliko die Ikastolaren hurrengo ikasturteko organigrama, bertan besteak beste, eskola-egutegia eta ordutegia agertuko dira.

Gurasoren batek bere seme-alabek egutegi hori osoki bete ezin dutela ikusiko balu, tutorearekin jarriko da harremanetan arazoei konponbide egokiena emateko eta Zuzendariaren oniritzia jasotzeko.

- 64.4. Banandutako bikoteen kasuan, haien seme-alabei buruzko informazioa bakoitzari bidaliko zaie.

## **65. Atala. Gurasoak eta ikastolako instalazioen erabilpena**

Gurasoek ikastolako instalazioak erabil ditzakete, ikasleen lana oztopatzen ez duten bitartean eta ondorengo gaiez antolatzen direnean:

- 65.1. Ikastolaz edo seme-alaben heziketaz, bilera, hitzaldi, etab. antolatzen direnean.
- 65.2. Kultura-jarduerak, herriko ospakizun, festak eta ekitaldiak antolatzeko.
- 65.3. Beren prestakuntzarekin zerikusia duten gaiak antolatu eta garatzeko.

Bilera hauen eskabidea Zuzendariari egingo zaio hiru egun lehenago gutxienez, gaia, eguna, ordua eta iraupena agertuz.

Beste bilera guztietarako baimena, "Ikastolako Instalazioak erabiltzeko eskabideak" atalean arautzen den arabera egingo da.

## **66. Atala. Guraso Eskola eta Udarregi Ikastola**

Orain dela urte batzuk, Udarregi Ikastolako zenbait gurasoren ekimenez sortu zen Guraso Eskola Usurbilen. Bi helburu garbi zituen: pertsonak bezala formatu, berritu, eta seme-alaben hezkuntzaren inguruko gaietan prestatu, hausnartu eta eraginkorki parte hartu.

Hasiera-hasieratik ikusi genuen, talde horren egiturak autonomia izan behar zuela, herri osoari irekia eta ikastolarekin lotura juridikorik gabekoa baina elkarkidetza harremanak mantendu behar zituela seme-alabekiko hezkuntza gaietan.

Ikastolak elkarkidetza harreman hauez gainera, Guraso Eskolak eragindako bilerak, hitzaldi eta ikastaroak bultzatuko ditu, baldin eta euskaraz eta hezkuntza gairik jorratzen badute. Guraso guztiei, antolatutako guzti horren berri emango zaie.

## ERANSKINAK

- **Ikasleen araudiak**
- **Ikastolako instalazioak erabiltzeko eskabideak**
- **Ikastolaren harremanak salmenta-etxe, erakunde pribatu eta erakunde laguntzaileekin**

### IKASLEEN ARAUDIAK

#### 1. EGUNEROKO FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

Araudi hauek ikastolako eguneroko bizitzan ematen diren hainbat eta hainbat item arautu nahi ditu, barne funtzionamendua ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

##### ❖ **Sarrera eta irteera orduak**

1. Ikastolako Hezkuntza garai desberdinetako ikasleen ordutegia, aldaketarik ematen ez den bitartean, hau izango da:

- **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza**
  - **Sarrerak:** 9:00etan eta 14:30ean
  - **Irteerak:** 12:30ean eta 16:30ean
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo DBH**
  - **Sarrerak:** 8:25ean eta 14:30ean
  - **Irteerak:** 12:30ean eta 16:30ean

Hezkuntza garai bateko ikasleen ordutegia aldatuko balitz, hori izango da indarrean egongo dena.

2. Bizikletak ikastolako kanpoaldean egokitutako gunean utziko dira. Hemen tokirik ez balitz egongo ikastolako erdiko aretoa erabili ahal izango da salbuespen gisa.
3. Bi eraikuntzetan ikasleen sarrera eta irteerak era honetan gauzatuko dira:

Ikastolaren eraikuntza berrian: Goizeko eta arratsaldeko ikasleen sarrerak beheko atetik – Atxegaldetik – egingo dira. Goiko sarrera, halaberharrez, berandu heldu direnek erabiliko dute. Irteteko berriz, biak erabiliko dira.

Ageri- Alde eraikuntzan: Sarrerak errepide aldean dagoen atetik egingo dira. Irteerak berriz, ate hau eta jolastokira ematen duena erabiliko dira.

4. Sarrera eta irteera orduak zorrotz beteko dira eta arratsaldeko 16:30etik aurrera lan egiten geratzen diren ikasleak, lana eman dien tutore edo irakaslearen ardurapean geratuko dira.

Arratsaldean, klaseak amaitu ondoren, ikasleak ez dira jira-biran eta solairu batetik bestera joaten ibiliko, ezta ordu desberdinetan ikastolara berriro sartzen eta ateratzen ere. Ateak itxiko dira eta irakasleek bidalitako bakarkako nahiz taldekako lanak egiteko edo zenbait entsegu edo entrenamendu egiteko bakarrik geratuko dira ikasleak eta beti ere, lehen aipatu bezala, irakasleren baten ardurapean.

#### ❖ Gela barneko jokabidea

1. Ikaslea puntual etorriko da gelara eta eskola-ordu guztiak beteko ditu zorrotz.
2. Etxetik ikastolara berandu etortzen denean, ikasleari eskatuko dizkio kontuak tutoreak edo irakasleak; berdin jarraituko balu, tutoreak gertatutakoaren berri emango die gurasoei, joera alda dezaten.

Berandu etortzea ikaslearen erru ez bada, gurasoena baizik, lehenbizi tutoreak berak hitz egingo du gurasoekin joera alda dezaten. Berdin jarraituko balute, Zuzendariak hartuko du erantzukizuna Artezkaritza Kontseilua informatuz eta hutsegite larriaren tratamendua emanez.

3. Ikaslea klasetik ez bidaltzen saiatuko da irakaslea, baina neurri hori hartzera behartuta aurkituko balitz, ikaslea jokabide ezkor batean mantentzen delako, erabaki hori har dezake.

Berdin jarraituko balu, egun baterako bidaliko du etxera, hutsegite larriaren tratamendua emanez.

4. Ikasleak eskola nahiz etxeko lanak egiten ez dituenean, tutoreak ohar bat bidaliko die gurasoei jakin eta izenpe dezaten.

Lan-eza nabarmena izango balitz, tutoreak lehenbailehen hitz egingo du gurasoekin arazoa konponbidean jar dezaten.

5. Ikasleak gero eta handiagoak egiten diren neurrian, klase-orduetan komunera ez joateko ohitura hartuko dute, halabeharrezko egoeretan ez bada behintzat.
6. Ikaslea ez da gelatik aterako irakaslearen baimenik gabe eta bakarrik edo ikastalde osoa ateratzen denean, korridoretako joan-etorriak isilik eta patxadaz egingo dira beste ikastaldeen lan-giroa oztopatu gabe.
7. Gelan ez da ezer jango, eta egunen batean ospakizun bereziren batengatik zerbait antolatuko balitz irakasle edo tutoreren baten ardurapean, gela garbi eta txukun utziko da.
8. Ikaslea ez da gelatik aterako telefonoz hitz egiteko, ezta kanpoko telefono-deirik pasako ere, horretarako atsedenaldiak aprobetxatuko dira, premiazko egoerak edo jangelako oharrak ez badira behintzat.



9. Irakasleak ikaslea Idazkariarengana fotokopiak ateratzera bidaltzen duenean, ahal baldin bada, atsedendian bidaliko du eta ikasleak ez ditu inoiz fotokopiak aterako, ez da fotokopiagailuaren gelan sartuko Idazkariarekin edo irakaslearekin ez bada.
10. Jolas garaian ikasleak ez dira geletan geratuko irakasleen baimenez ez bada.
11. Arratsaldeko azken orduan ikasleek gelatik atera baino lehen, aukiak mahai gainean jaso eta koaderno, liburu, karpetak, etab. beren laukitegietan txukun utziko dituzte.
12. Ikasturtero gelako ardurak finkatuko dira eta txandakatuz beteko dira.
13. Ikasleek ezingo dute telefono mugikorra erabili ez deiak edo mezuak hartzeko ezta bidaltzeko ere.
14. Ez da ez edari alkoholdunik ez beste edozein motatako drogarik kontsumituta ikastolara etortzea onartuko, ez eta hauek bertara ekartzea ere.

❖ **Gelaz kanpoko jarrera**

1. Arau haustea eskola eremutik kanpo egin izana ez da eragozpen izango Araudia aplikatzeko garaian hau ikastolak antolatutako ekintza osagarri edo eskolaz kanpoko ekintzetan, jantoki zerbitzuan edo garraio zerbitzuan gertatzen bada. Era berean, eskola jardunarekin kausa-ondorio erlazioa duen kasuetan ere aplikatu ahal izango da.

❖ **Baliabideekiko jarrera**

1. Ikasturtearen hasieran eta Hezkuntza Garai desberdinen arabera, gela bakoitzean arduradunak izendatuko dira, bakoitzak bere ardura zehatza izango du. Ardura hauen epeak ere, garbi adieraziko zaizkie.
2. Ikasleak gelako baliabide pedagogikoen erabilpen zuzenaz arduratuko dira, axolagabekeriak erabiliko ez dituztelarik. Guztionak diren gelako baliabideak ongi tratatu behar direnaren heziketan ohitu behar dute.
3. Bakoitzaren baliabideak ere (karpetak, koadernoak, etab.) txukun eta ordenatuta eduki ditzaten eskatuko zaie. Norberaren baliabideak gordetzeko apal edo laukitegiak izango dituzte.
4. Gelako mahai gainak eta aukiak garbi egongo dira, ez da hauetan idatziko, ezta pintaketarik egingo ere, hormetan eta armairuetan egin behar ez diren bezalaxe.
5. Idatziak, eskakizunak, agiriak eta oharrak gela bakoitzean dauden kortxo edo horretarako egokituta dauden lekuetan jarriko dira. Idatziak eta eskakizunak txukun eta ulergarriak izango dira.

6. Gelako material guztiaren erantzuleak dira bertako ikasleak eta apropos edota zabarkeriaz puskatutako baliabideak beraien ordaindu beharko dituzte.
7. Hutsegite larritzat hartuko da irakasleen, lagunen edota ikastolako gauzak lapurtzea.

#### ❖ **Jolaslekuen banaketa**

Haur Hezkuntza nola Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraikinetako jolasleku eta atsedenaldeen ordutegiaren banaketa behar da, lekuak eta orduak hobeto aprobetxatuz ikasleek leku gehiago izan dezaten.

Ikasturtero Etapa bakoitzak bere lekuak izendatuko ditu, ikasleek garbi jakin dezaten non ibili behar duten. Bestalde, Etapa desberdinetako jolas garaiak aldatzen ez diren bitartean, hauek izango dira:

- **Haur Hezkuntzan**

- **Goizez:** 11:15etik 11:45era
- **Arratsaldez:** 15:45etik 16:15era

- **Lehen Hezkuntzan**

- **Goizez:** 11:00etatik 11:30era, Udarregi Berriko eraikuntzan dauden 5. eta 6. mailako ikasleak eta LH 3 eta LH 4 Ageri Aldeko eraikuntzan.
- **Goizez:** 10:30etatik 11:00etara, LH 1 eta LH2, Ageri Aldeko eraikuntzan.

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo DBHn**

- **Goizez:** 10:15etik 10:40ra.

#### ❖ **Jolas garaietako jokabideei dagokienez**

Jolas garaiak, ikasleek jolasteko, gozatzeko edota beren lanetan atsedena hartzeko garaiak dira.

Dena den, ondorengoak ere kontuan hartu behar dira:

1. Jolas garaian ez dira ikasleak baimendutako eremuetatik aterako. Arau hauste hau hutsegite arina izango da.
2. Ikasleak ez dira gela barruan geratuko irakasleen baimenez ez bada behintzat.
3. Maila desberdinentzako banatutako jolaslekuak beti errespetatuko dira, ikasle zaharragoek ez diete txikiagoei lekua kenduko. Eremu bakoitzean egokia den jolas materiala erabiliko da.

4. Ikasleentzat arriskutsua izan daitekeelako, ez da onartuko jolaslekuetan bizikletaz, motorrean, patinetean eta antzekoetan ibiltzea.

Ikasleak, jolas garaietan, nola eskolaz kanpoko kirol entrenamenduetan ez dira sare, porteria eta antzekotik zintzilikatuko, ezta makila, harri eta horrelakoak botatzen ibiliko ere.

5. Jolas garaiak irakasleez zainduak izango dira beti.
6. Ikasleen portaerak jatorrak eta normalak izatea komeni denez, ez dira ikasleen arteko borrokak eta irainak onartuko.
7. Jolaslekuak ahalik eta txukunen edukiko dira; paperak, zorroak, plastikozko poltsak, etab. bota gabe.
8. Jolas garaian min hartu duen ikaslea zaintzen dagoen irakasleak artatuko du botikinera eramanez eta dagokion seguru etxera deituko du. Larritasunaren arabera gurasoak jakinaren gainean jarriko dira, idazkaritzan honen berri eman behar da.

#### ❖ **Irakasle eta ikasleen arteko harremanak**

Norberaren eskubide eta betebeharretan adierazten den bezala, garrantzitsua da irakasle eta ikasleen arteko harremanak begirunez garatzea.

Elkarrenganako errespetua eta jatorritasuna izan beharko lirateke harremanen oinarri, bai hitz egitean nola eguneroko lanetan, ibilaldietan, etab.

## **2. EBALUAZIO- AZTERKETAK ORDENATZEKO ARAUDIA**

Ebaluazioa kontzeptu zabala eta konplexua da. Bestalde, Hezkuntza Sistema desberdinek ebaluazio-sistema desberdinak eskatzen dituzte eta denboran zehar egokitu eta berri behar den hezkuntza-alorra da.

Ez dago ebaluatze modu bakar bat, anitz baizik. Horregatik, Hezkuntza Administrazioak finkatzen dituen orientabide orokorretatik abiatuz, ikaslea bere osotasunean hartuko duen adierazpen fresna egokiena gauzatzen ahaleginduko da ikastola.

Ikastolak aukera dezakeen sistemak, ondorengo hauek hartu behar ditu kontuan gutxienez:

#### ❖ **Informearen prestaketa eta maiztasuna**

1. Tutore bakoitzak ikasturtean zehar bi informe prestatuko ditu, gutxienez, non ikaslearen hezkuntza-prozesua zertan den adieraziko den.

Informea, gutxienez behin, elkarrizketa bidez agertuko zaie gurasoei.

Haur Hezkuntzako lehen urtean gainera, haurrari fitxa pertsonala egingo zaio gurasoekin izandako elkarrizketan oinarrituz.

2. Etengabeko ebaluazioaz gainera, finkatutako azterketa-egunean ikasleak etortzerik izango ez balu, gaixorik egon, kanpora joan edota justifika daitekeen beste edozein arrazoiengatik, gurasoek alde zuzenetik ohartu beharko dute irakaslea.
3. Aipaturiko arrazoiengatik azterketa egitera etortzerik izan ez duten ikasleek beste azterketa egiteko aukera izango dute.
4. Justifikatu gabe azterketara etorri ez diren ikasleek ez dute beste azterketarako aukerarik izango.
5. Azterketa bat egin eta gaituta ez duten ikasleek, beti izango dute errekonferentzia-azterketa egiteko aukera.

Ohiko azterketen nola errekonferentzia-azterketen egun eta orduak, alde zuzenetik eta behar den denboraz, finkatuko zaizkie ikasleei.

### **3. IRTENALDI, TXANGO ETA BIDAIAK ORDENATZEKO ARAUDIA**

Tutore bakoitzak ikasturte hasieran egiten duen guraso bileretan irtenaldi guztien berri emango die gurasoei, irtenaldi hauen ezaugarri eta arrazoiak agertuz.

1. Ikasturte bukaeran egiten den txangoaz gainera, hezkuntza helburu batekin egiten diren gainontzeko guztietan, txosten bat eskuratuko die irakasleak ikasleei irtenaldiari dagozkion ezaugarriekin, hauek guztiak ikaslearen mailari egokituta.
2. Ikastalde bakoitzeko tutore, irakasle edo beharrezko diren arduradunak joango dira.
3. Kurtsoan zehar egiten diren txango didaktikoak hezkuntza helbururen batekin antolatuko dira, Hezkuntza ekintzak direnez, ikasleak bertan esku hartzeko betebeharra dauka, non eta kontrako arrazoi sendorik ez duen. Hala ere, gaua etxetik kanpo pasa beharreko irteerak ez dira derrigorrezkoak izango.
4. Ikasleek tokian tokiko araudia errespetatu beharko dute.
5. Autobusez, trenez ... egiten diren bidaietan ere bertako araudia beteko da.
6. Egun bat baino gehiagoko irtenaldietan sortzen diren lan eta betebeharrak taldeka eta ardurak banatuz egingo dira.
7. Ez da ez edari alkoholdunik, ez beste edozein motatako drogarik kontsumitzea edo eramatea onartuko.
8. Puskatzeak edo kalteak egiten dituen/dituzten ikasleak/ikasleek ordaindu egingo ditu/dituzte. Erabilitako egoitza, etxe, aterpe, etab., txukun eta ordenatuta utziko dira.
9. Ekintzan parte hartzen duten irakasleek, beraiek egoki iruditzen zaizkien neurriak hartuko dituzte arauak beteazteko. Ikasleren bat, jarrera desegokia dela eta, etxera bidaltzeko neurria hartzen bada, aurrez gurasoei erabakiaren berri emango litzaieke.

10. Ikasleek irteerara joan aurretik ondorengo informazioaren berri izango dute:
  - a) Bidaiaren iraupena, salneurria ...
  - b) Egitaraua: bisitaldiak, ekintzak, ...
  - c) Portaera arauak:
    - Arazo larriren bat gertatuko balitz, bidaiako arduradunek erabakiko dute zer egin, taldeari iritzia galdetu ondoren.
    - Araudi hau gurasoen eskuetan jarriko da bidaia egin aurretik. DBHko gurasoek, gaua kanpoan pasa beharreko txangoetan, haren onarpena sinatu beharko dute. Horrela gertatu ezean, ikaslea ez litzateke bidaiara joango. Ikus eranskina: "DBHrako irteeren araudia".
11. Ikasle bakoitzak eraman dezakeen diru kopurua guraso edo etxekoan baitan geratzen da, baina ez da egoki ikusten diru asko eramatea.
12. Tutoreek eta irakasleek beti eramango dituzte Seguruko ziurtagiriak eta botikina.
13. Ikasturte amaierako txangoak ordaintzeko diru-iturri desberdinak erabili ahal izango dira: zozketak, jaialdiak, ekintza bereziak, eskulanean salmenta, etab. Dena den, ikastolaren baimena beharko da edozein ekimen antolatzeke.
14. BAko arauak aplikagarriak dira irteera hauetan. **ERANSKINA: "DBHrako irteeren araudia"**

## IKASTOLAKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ESKABIDEA

Ikastolak betidanik eman die eskatu dioten herriko elkarte eta taldeei instalazioak erabiltzeko aukera eta horrela jarraitzen du zeina ikastolak berezkoa duen zeregin hezitzaile nagusiaz gainera, badu herriko beste talde kulturekin elkarlanean jarraituz, beste zeregin kulturala ere baduen.

Dena den, alor hau ere arautu beharrean dago, bakoitzaren betebeharrak zein diren eta nola bete behar diren argitzeko.

1. Erakunde edo talde batek ikastolako instalazioak erabili nahi baditu, idatziz zuzenduko dio eskabidea Artezkaritza Kontseiluari Zuzendariaren bidez, bertan ondorengoak agertu beharko direlarik:
  - 1.1. Eskabidea ZERTARAKO den: zein ekitaldi, emanaldi edo ekintzatarako egiten den.
  - 1.2. NOIZKO den: eguna, ordua eta gutxi gorabeherako iraupena.
  - 1.3. Taldeko ORDEZKARIAREN datuak: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta sinadura.

Eskabidea, ahal bada, ekintza ospatu baino astebete lehenago egin beharko da.

2. Ahal dela, Ikastolako Erdiko Aretoan ospatuko dira ekintza guztiak: kantaldiak, kontzertu, antzerki, hitzaldi eta beste emanaldi guztiak.
3. Ekitaldiek eskatzen duten azpiegituraz (mahai, aulki, oholtza, eta abarrez), eskabidea egin duen elkarte edo taldea arduratuko da. Ikastolak daukanaz baliatzen bada, bere lekuetan utziko ditu ekitaldia bukatzen denean. Halaber, erabilitako lekua txukun eta ordenatuta utziko du.
4. Ekitaldiak irauten duen bitartean, eskabidea egin duen taldea arduratuko da ikusleek ekitaldia ospatzen ari den lekua bakarrik erabil dezaten. Halaber, ekitaldiak ikusleen aldefik eskatzen duen jarrera onaz ere arduratuko da.
5. Instalazioetako erabilpenaren ondorioz gauzak desagertu edo puskatuko balira, eskabidea egin duen taldea arduratuko da ordainketaz.
6. Ikastolak dituen baliabideak: telebista, bideoa, proiektoreak, etab., ez da ikastolatik ateratzen utziko, baina eska ditzakeen taldeari ikastolan bertan erabiltzeko aukera emango zaio.
7. Ikastola bera ez da arduratuko ezta erantzule izango ere, talderen batek edo pertsonaren batzuk eskabidea egin dutenerako erabili beharrean beste zerbaitearako erabiltzen badute ikastola. Horren aurrean Artezkaritza Kontseiluak dagozkion neurriak hartuko ditu.

## **IKASTOLAREN HARREMANAK SALMENTA- ETXE, ERAKUNDE PRIBATU ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEKIN**

1. Erakunderen batek instalazioen erabilpena eskatuko balio ikastolari ikastaroak eman edota irakaskuntzarekin zerikusia duen zerbait irakasteko etekin ekonomikoarekin, Artezkaritza Kontseiluak aztertuko du baimena eman ala ez eta alokairu gisa zenbat kobratuko duen, aurreko puntuetan erabakitako funtzionamendu baldintzen arabera, beti ere.
2. Zenbait erakundek lurralde behar-suentzat laguntza eskatuz ikastolara jotzen duenean, ikastolak jarrera baikorra izango du, ez dirua biltzeko baina bai beste laguntza-mota eskaintzeko – arropa, baliabide pedagogikoak...-.
3. Dena den, erakundeak behar bezala kreditatu beharko dira eta ondoren Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du zer egin.
4. Ikastolak ez du utziko inongo erakundek, alderdik edo taldek ikaslea erabil dezan eskola-orduetan propaganda edo publizitaterik banatzeko.
5. Ezta ikastola barnean liburu saltzaileek argitaletxe desberdinen publizitaterik banatzen utzi ere. Ikastolak ez du bitartekaritza lan hori egingo. Dena den, liburuek eduki dezaketen interesagatik, saltzaileek banatu ahal izango dute liburuen publizitatea ikastolako sarreretan ikasleen irteera-orduetan.
6. Irakasleei liburuak aurkezteko garaiak, atsedenaldia eta arratsaldeko klaseak amaitzean izango dira.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **IKASTOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN ALDAKETAK**

IKASTOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA ez da egunero edo edonork alda dezakeen zerbaít. Bertan, ikastolaren oinarri nagusiak finkatu eta eguneroko antolamendua eta bizitza nolaz Hezkuntza Komunitateko kideen bizitza arautzen denez, iraupen bat eskatzen duen proiektua da. Baina bestalde, denbora pasa ahala, berriú eta eguneratu beharko denez, argi zehaztu beharko da NORI ZER aldaketa egitea dagokion.

1. Ikastolako Hezkuntza Proiektuko lehen esparrua, Nortasun Ezaugarriak edo Ideariuma, hots, ikastolari funtsezko izaera eta nortasuna ematen dion atala, Batzar Orokorrari, soilik, dagokio aldatzea, bera delako organo erabakitzaile gorena.

Dena den, izaera horren ezaugarri gutxi batzuk aldatu behar direla ikusten bada, Hezkuntza Administrazioak nola Ikastolen Elkarteak hala eskatzen dutelako, Artezkaritza Kontseiluak egin ahal izango ditu aldaketa hauek; baina beti ere, ondoren Batzar Orokorra informatu beharko du.

2. Gobernu eta Funtzionamendu Egiturari, hots, bigarren esparruari dagokionez eta hain zuzen, Batzar Orokor eta Artezkaritza Kontseiluko egituren nahiz funtzioen aldaketak egiteko, Batzar Orokorrak bakarrik egin ahal izango ditu, Artezkaritza Kontseiluaren proposamenez.

Baina agertzen diren ikastolako beste profesionalen estamentuen egitura nola funtzio pedagogikoen aldaketak Artezkaritza Kontseiluari dagozkio Zuzendariaren proposamenez, aldaketa horien berri Batzar Orokorrari eman beharko zaizkiolarik.

3. Azkenik, Barne Araudiari dagozkion aldaketak, Legez edo Lan Hitzarmenez aldatu, berriú edo gaurkotu behar baldin badira, Zuzendariaren ardura izango da, Klaustroa eta Artezkaritza Kontseilua informatu beharko dituelarik.

Ikasleen eguneroko funtzionamendua bideratzen duten araudien aldaketak egiteko, Klaustroak erabaki eta Zuzendariak onartu ahala aldatuko dira, beti ere, Artezkaritza kontseilua informatu beharko delarik.

Gurasoei dagozkien Eskubide eta Betebeharren aldaketak eta eguneratzea, aldiz, Artezkaritza Kontseiluaren ardura izango da, Batzar Orokorra informatu beharko duelarik.



